



ARGIA

Teknologiak ez dezala hezkuntza estali

26-31. orrialdeak

2.862 | 2024 / 03 / 10 | 4,00 €



Transgeniko berriei bidea ireki die Europak

12 | INGURUMENA



Bizitzekin negoziarik ez egiteko eskea, kalera

35 | MARTXOAK 8



Okupas Motorizados: gidarien jokabide kapazitistak, gainbeheran

38 | GORPUTZAK

egonarrria

Lurrari entzuten dion saioa

Pilpilean diren gaiez elkarrizketak,
Eli Pagolak gidatuta platoan.

Laborarien esperientziak,
Mattin Jauregik jasoak landatik.

Asteazkenero argia.eus-en eta
plataforma guztietan

 ARGIA.eus/podcast

Martxoak 6

Emakume baserritarrak

Alazne Intxauspe
(Etxaldeko Emakumeak)

Martxoak 13

Baratzetik plazara

Onintza Enbeita

Martxoak 20

Zer da benetako dieta osasuntsu bat?

Leire Udabe (Lakari denda)

Martxoak 27

Zergatik igotzen dira elikagaien prezioak?

Juanma Intxaurrendieta



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ILUSTRAZIOA: PAULA ESTÉVEZ

Iritziak

- 21 | IRATI LABAIEN
- 22 | TERE MALDONADO
- 23 | RUBEN SANCHEZ
- 23 | EDU ZELAIETA
- 24 | BEÑAT MUGURUZA

Finkoak

- 40 | BIZI BARATZEA
- 44 | ARGIA KOMUNITATEA
- 45 | DENBORAREN MAKINA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



16 | YUK HUI, TEKNOLOGIA KOSMOBISIOEKIN UZTARTZEAZ

Adimen Artifiziala lantzen zuen informatika ingeniaria izatetik, teknologiaz hausnartzen duen filosofo izatera pasatzeko hautua egina du Yuk Hui-k. Teknologia aniztasunetik garatu beharra aldarrikatu du Danele Sarriugartek egin dion elkarrizketan.

DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Opari ederra Bruselak transgeniko ekoizleei: bukatu dira orain arteko kontrolak

Jenofa Berhokoirigoin

26 | HEZKUNTZA

Teknologiarekiko lilurak ez dezala hezkuntza itsutu

Mikel Garcia

32 | HISTORIA | TOBILLAS HERRIKO SERNA

1.300 urtez, elkarrekin lurra landu eta bizi

Josu Narbarte

35 | FEMINISMOA

Emakumeak borrokan, instituzioak entzungor

Leire Artola

38 | GORPUTZ HOTSAK

“Ederrena izanen zen okupa motorizatu guztiak desagerraraztea”

Olaia L. Garaialde

46 | KULTURA | UXUE ALBERDI HAMARKADA BI IDAZTEN

Uxue Alberdi, hamarkada bi idazten

Ainhoa Aldazabal

48 | KULTURA

Zorigaitzoko musikarien laztasunak

Julen Azpitarte



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Ainara Rodil, Amaia Lekunberri,
Axier Lopez, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Manex Moreno, Mikel Garcia, Olaia L.
Garaialde, Onintza Irureta, Pello Zubiria,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: S5 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu,
moldatu, zabaldu eta argitara
ditzakezu, gure egiletza aitortu eta
baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da
testuentzat eta, argazkien eta
ilustrazioen kasuan, ARGIAren
sinadura daramatenentzat soilik.



Ekoedizioaren Institutuko
bazkide da ARGIA

Zeruari begira?

Lehor dago Katalunia. Aspaldi ikusi gabeko neurrian. Zeruari begira dago asko, baina lehortea ez da erabat naturala edo arrazoi historikorik gabekoa. Hein handi batean, lurraren aldeko mugimendu guztiek azpimarratu bezala, eredu ekonomikoaren ondorioa da. Atmosfera gehiegi berotzeaz gain, lurraldeak eman dezakeena baino ur gehiago behar duten sektoreak bultzatzen dituen eredu, turismoa eta nekazaritza- eta abeltzaintza- intentsiboa ikur. Kapitalismoaren etengabeko hazkundearen mantra eroak baliabide mugatu horren kontsumoa areagotu besterik ez du egiten. Kataluniak %31n gainustiatzen du bere ur geza eta, gainera, giza eskubide horren kudeaketa gehien pribatizatu duen munduko lekuetakako bat da: herritarren %78ri enpresa pribatuek hornitzen diote ura. Zerutik ez da konponbidea etorriko, ezta egurrezko panpina bat pasiatuta ere. Arazoa oso lurterra da. Izen-abizenak ditu.

📍 Tarragonako nekazari batzuk, katolikoaren jainkoari eskatzen euria egin dezan. **ANADOLU**

🔗 **AXIER LOPEZ**







AHOTSA.INFO

Beloa eramateagatik lanik gabe utzi dute

 LEIRE ARTOLA ARIN

Beloak egoiliarak aztoratu ditzakeela" argudiatu du Iruñeko zaharren egoitza batek, garbitzaile bat lanik gabe uzteko. Arrazakeria, diskriminazioa eta islamofobia salatu ditu langileak, eta Iruñeko Lan Ikuskaritzaren aurrean elkarretaratzea egin dute, SOS Arrazakeriak eta LAB sindikatuak deituta. Ikuskaritzak salaketa itxi du, eta onartu egin du Misericordia enpresaren argudiaketa, dioena ez ziotela eskatu hiyab-a kentzea erlijio arrazoiengatik, baizik eta egoiliarak "ez asaldatzeko beloa ikustean".

Nafarroako SOS Arrazakeriak jaso du emakumeak jasandakoaren kontakizuna. Grupo ONE enpresak eskatuta, Casa de la Misericordia zaharren egoitza kontzertatura joan zen ordezkapen bat egitera. Bertaratutakoan, eta egin beharreko lanak azaldu ostean, ustez arduraduna zen beste pertsona bat agertu zen, eta jarraian esan zioten ezin zuela beloa-rekin lan egin. Emakumeak lanpostua utzi behar izan zuten, oraindik kontratua sinatu ere egin gabe.

Langileak diskriminazioa salatzea erabaki zuten, baina Misericordian esan zioten ezin zutela "ezer egin", esanez "arauak horrelakoak" direla. SOS Arrazakeria elkartera eta LAB sindikatura jo zuten jarraian, eta Lan Ikuskaritzara bideratu zuten kasua. Auzia itxi du ikuskaritzak, eta ondorioztatu du "gaia konplexua" dela; batetik, ez delako ka-

leratzea izan, oraindik kontratuean ez zegoelako, eta bestetik, gaiari dagokion jurisprudentzia eskasa delako. Lan Ikuskaritzak dio organo judizialei legokiekeela hori ebaztea.

SOS Arrazakeriak gogor kritikatu du Lan Ikuskaritzaren jarrera eta adierazi du Misericordia enpresak emandako arrazoa "izugarri arrazista" dela, eta islamofobia dela nortasun sinboloak lotzea arriskua edo segurtasun eza bezalako estereotipo negatiboekin. "Oso larria da erakunde publiko batek esaldi hori entzun ostean ez erabaki izana ikertzen jarraitzea eta salatzaileari gonbidatzea epaitegiko bidea hartzera".

LA MOREA MERKATARGUNETIK ERE KALERATUA

La Morea merkataritza zentroan zuten lanpostutik ere kaleratu zuten emakumea. Bost hilabetez "arazorik gabe" garbiketa lanetan aritu ostean, mezu bat bidali zioten, esanez ezin zuela hiyab-a eraman aurrerantzean, arduradunak hala zioelako. SOS Arrazakeria elkartearekin harremanetan jarri zen, eta lortu zuten lanpostura itzultzea, baina bi aste geroago kaleratu zuten, "arrazoirik gabe". Andreak *elDiario.es*-en adierazi duenez, orain ez dio inork deitzen lanerako: "Zuzenean baztertzen naute curriculumak ikusten dutenean, argazkian zapi daramadalako". ●

MOTZEAN

Turismoari buruzko pertzepzioaz galdetu die EHUK donostiarrei, eta ondorioztatu du herritarren erdiak baino gehiagok "frustrazioa" sentitzen duela. Lau donostiarretatik hiruk uste du turismoak "kalte handia" egiten diela.

"Nafarroa defendatu" manifestua sinatu duten 120 alkateek egindako deialdiari erantzunez, Nafarroako autogobernua eta herritarren borondate demokratikoa errespetatzeko eskatu dute Iruñean.

227 lanpostu kolokan daude Bizkaian, euskara eskakizunengatik. Diputazioko langileak egonkortzeko bi prozesu eten ditu EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren menpeko epaitegi batek.

Miravalles-Redin eta Irabia-Izaga Opus Deiren ikastetxeei DBHko ituna kenduko die Nafarroako Gobernuak, ikasleak sexuagatik banatzen dituelako.

Gure Esku-k "Herri libre bat" dinamika aurkeztu du. Subiranotasunaren auzia agenda politikoaren erdigunean ezartzea izango dute helburu.

MATERIALISMO HISTERIKOA

Drogak, literatura edo hil



UXUE APAOLAZA LARREA

Asperduraren aurkako gizarte batean bizi gara, diogu, ez digute aspertzen uzten: gonbidapena mugimendua ez denean (bidaiak, bota handik, igo hara, bilatu zer-bait begiak itxita eta apatx eginda...), mugimenduak garestitxoak direlako, gailutxoak ditugu, beren argitxo eta zaratxoekin, garuna, ziur, mugitzen ari balitz bezala sentiarazten dutenak, entretenituta gozokiak harrapatuz, geldi dantzan, geldi parrez, geldi kozinatzen... Eta sorkuntzak, irakurketak... aspertzeko denbora behar du. Ados. Baina bada beste asperdura bat, horren guztiaren azpian hedatzen dena, historikoa, bi baino gehiago garenetik dagoena, unibertsoa bezain infinitua, existentziala, astuna. Asperdura batzuek, telesail batean entzun nuen eran, "zeure burua zauritzeko gogoa" sortzen dute. Ez dakit denoi berdin eragiten digun, ahalegintzen gara ez honi buruz hitz egiten, edo ez oso maiz, ez askorekin, bihozgabe elitista bilakatzeko baitzara bigarren esaldirako.

Badu zerikusia edukiak, badu zerikusia eduki horri hedatzeko zenbat denbora oparituko zaion. Esaterako, "zaku berria erosiko diozue umeari, edo zuena eramango du? Agian handiegi, ez? Ito egin daiteke. Decathlonen badira batzuk motzak, baina luza daitezkeenak, agian, lehen urteetarako. Eta udan furgorako ere ondo. Eta motxilak? Ikusi dituzue barruan lau poltsiko eta...". Horrela, orduak, mandarinak zurituz. Edo "Labana atera zion, gaur egungo gazteak ez dira gure garaikoak bezalakoak. Gure garaian ere bazirela borrokak? Ados, baina ez zen inor hiltzen, ez genuen labanarik eramaten, orain denek daramate zer bait, batez ere, tira, arrazista da esatea baina...". Edo etxea, edo egunerokoa txukun edukitzeko gomendioak, kaos kontrolaezina garaitu dutela uste dutenak, kaxoi ordenatuen, Excelen eta agendaren bidez. Edo: "ez, ez, ez dut ikusi. Nor? Nor? A, eta hori zer, zer, hautagaia, zertarako? A, hauteskundeak, ez, ez, ez diot kasu handirik egiten. Botoa emango dut, eman behar delako, baina denak dira antzekoak, ez digute horiek jaten emango, bata edo bestea jarri gure bizitza ez da asko aldatuko". Edo guztiz ados egonda ere, egunero indignazio berberaz errepikatzen diren slogan hus-tuak, edo unean uneko indignazio ikasiak.

Asperduraren aurkako gizarte honetan, agian, pixka bat pentsatu behar da aspertzeko. Eta, horregatik, beharbada, nahiago dugu geure seme-alabak entretenitu. Askoz okerragoa da pentsatzen badute. Askoz okerragoa da asperdura itsasten bazaie. Hortik aurrera, aukera gutxi ergelkeria errepikatuek kohesionatutako jendarteetan: drogak, literatura, ala (asperduraz) hil(ik bizi). ●

EZ HANKA EZ BURU



EKONOMIA

Ustelkeriaren normalizazioa




AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

904.000 milioi euro. Hori da ustelkeriaren kostua urtean Europar Batasunean, 2020an egindako ikerketa baten arabera. 2008. eta 2020. urteen artean 3.743 ustelkeria kasu plazaratu ziren komunikabideetan Espainiako Estatuan, horietatik 109 Hego Euskal Herriari zegozkien. Atzera begira aurkituko ditugu kasu gehiago noski, besteak beste, ibilbide judiziala bukatu berri duen *Bravo auzia*. EAJ-ren senatari legealdi batez, eta Gipuzkoako Ogasuneko buru urte luzez, 1,9 milioi euro lapurta eta ogasunean zortzi milioiko galera eragiteagatik epaitu zuten Victor Bravo. Baina auzia gehiegi luzatu eta zigor erdia betetzearekin nahikoa izango du.

Espetxea saihestuko du, eta nire aldetik inolako arazorik ez. Herritar gisa horrek ez ditu nire eskubideak zertan ukitzen. Finantziario publikoari hainbesteko galerak eragiteagatik ordea, ondorioa isun bat izatea, galtzaile zuzena egiten nau. Ulergaitza da Gipuzkoako arduradun politiko eta instituzionalak ez ezagutzea urtez urte handitzen ari zen zulo beltz hori; baina batez ere, ezinezkoa litzateke halako lapurreta sistematorik egitea, sistemak berak horretarako aukerik emango ez balu. Europan urtero 904.000 milioi euro lapurtzea hain onarturik baldin badago, sistemak “bere bidea” egitearen kostu bezala ikusten delako da.

Ustelkeriak ere “bere bidea” egiten jarraitzen du. Publiko-pribatu elkarlanaren izenean diru publikoa enpresa pribatuetara bideratzeko dauden erraztasunez gain, hortik aberasteko aukeraz baliatzen direnek milioiak lapurtzen dizkigute urtero. Eta *Koldo auzia*-rekin berriz gertatu da. Baina alderdien arteko zarata politikorako tresna besterik ez da hau ere, ustelkeriak herritarro eragiten digun galera ekonomikoa eztabaidaren erdigunean jarri eta egiturazko arazo politiko hori errotik aldatzea lehenatasuna izan beharrean. Ez dugu halakorik entzun egun hauetan, eta izan dadila neurri eraginkorrakoak daudelako, baina aspaldikoa da isilik geratzeko ohitura alderdi batzuen artean. Berri txarra litzateke alderdi gehiago batzea joko politiko horretara. ●

ANALISIA



“Interbentzio kirurgikoa” Ertzaintzan

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Merezi zuen oihartzunik ez zuen lortu Erne, Esan eta Sipe sindikatuen ohar bateratuak. Tolosako inauterietan Ertzaintzak begian zauritu zuen adingabea ospitalean zegoela, interbentzio kirurgiko baten zain, sindikatu horiek pentsatu zuten une egokia zela operatiboan parte hartu zuten kideak “zoriontzeko” beren “interbentzio kirurgiko profesionalagatik”. Gero betikoek esango dute poliziek ostiak partitzen bakarrik dakitela: bada, ez; umore beltzean ere, txapeldun.

Eta aste batzuetara, martxoaren 3an, umore beltzaren eta interbentzio kirurgikoen erakustaldi berria Gasteizen. Umore beltzetik dezente baitu Espainiako Polizia frankistak 1976an hildakoak omentzen dituen manifestazioaren aurka oldartzeko euskal polizia demokratikoak duen ohitura. Eta interbentzio kirurgikotik, “pertsona talde baten” ustezko portaera dela eta milaka pertsonako manifestazioaren aurka egitea, berriz ere foam jaurtigaiekin, baina baita furgonetekin eta gomazko pilota ilegalekin ere.

Dugunaren ispilu dira bi adibideak, ez besterik. Azken hauteskunde sindikaltan Tolosako oharra sinatu zuten Erne, Esan eta Sipek bozen %77,6 eskuratu zuten. Gehitu horri Euspel sindikatuaren %12,9 (Brigada Mugikorreko beltzen artean gehiengoa eskuratu zuen sindikatu, ideia bat egin dezagun). Eskuin muturreko jarrerak eta diskurtsoak ez dituen sindikatu bakarrak, ELAk, bozen %7,8 eskuratu zuen. Hori da argazkia.

Poliziaren inguruko eztabaida jarri dute mahai gainean berriz ere Tolosako eta Gasteizko gertaerak. Lehenik eta behin, garrantzitsua litzateke eztabaida ez abiatzea Poliziaren izaera eta existentzia bera ontzat emanda. Eutsi diezaigun utopiaren banderari, errealismoak eskertuko digu. Baina posibilista jarrita, honatx interbentzio kirurgiko berri baterako proposamena. Demagun, polizia armatu biolento kopuru jakin bat beharrezkoa dela istiluak ekiditeko (?) edo zenbait delinkuentzia motari aurre egiteko. Ba, demagun. Bestelako zenbat funtzio hartzen ditu Ertzaintzak? Trafikoa, bulego lana, eskoletan hitzaldiak, musika banda, salbamendua itsasoan edo mendian, polizia judiziala, ziberdelinkuentziaren jarraipena... Beharrezkoa al da horiek beteko dituzten pertsonak Arkautiko komisarian formatzea eta formakuntza militarra jasotzea? Gauza baterako da ezinbestekoa, soilik: poliziaren funtzio errepresiboa zabaldu eta legitimatzeko, gauza onak ere egiten baititu (“Poliziarik ez”, dioenari erantzun ahal izateko: “Eta nork zuzenduko du orduan trafikoa?”).

Zergatik ez Trafiko Eskola –eta ez komisaria–, trafikoaz arduratuko diren Trafiko Departamentuko langileak –eta ez poliziak– formatzeko? Eta salbamenduaz arduratuko diren pertsonentzako –ez polizientzako– eskolak, eta... Horrela, lanpostu horietara aurkeztu ahalko lukete gustuz edo kontratuak eskatuta ostiak partitzeko prest ez dauden pertsonak, eta ez lukete beren nortasuna militarizatuko lukeen formazio militarrik jasoko. Interbentzio kirurgikoa, finean, biolentoak isolatu eta ahalik eta jende eta funtzio gutxien kutsatu ditzaten.

Ameskeria eman lezakeena sinplea da alderantziz pentsatuta: suak itzaltzeaz ez da Polizia arduratzen, suhiltzaileak baizik –eta ez da trafikoa gidatzea baino jardue-ra zibilagoa berez-. Eta, suhiltzaileen artean, gihartsu asko egonagatik ere, ez dira nagusi eskuin muturreko sindikatuak, ideiak eta interbentzioak. ●

3.

erabiliena da euskara, Netflix, Amazon Prime eta Disney+ Europako streaming plataformetan erabiltzen dituzten bost hizkuntza gutxituen artean. Lehenengoa katalana da eta ondoren datoz galiziera, euskara, luxenburgera eta Eskoziako gaelikoa.

104

palestinar hil eta 280tik gora zauritu ditu Israeliek, laguntza humanitarioa iritsi eta janari zain zeuden bitartean, martxoaren 1ean. Kamioietan eraman behar izan dituzte ospitaletara.

%80

Nafarroako eskola publikoen hamarretik zortzitan eskolaldi jarraia aukeratu dute familiek. Ikastetxe publiko guztietatik, seik izango dute eskolaldi zatitua eta batek malgua.

“Ertzaintzaren sarekadak ez dira osasun publikoaren alde, argi eta garbi”



AITOR DE LA TORRE ARAMENDI

Ertzaintzak drogen kontra Laudion eginiko sarekadan atxilotu zuten De la Torre. Herritarrak azaldu du bere atxiloketak ez zuela zerikusirik izan drogekin, zenbait agenteren jarrerarekin baizik.

AIARALDEA.EUS (2024-02-27)

“NOLA DA POSIBLE INGELESA, FRANTSESA ETA ALEMANAREN EZAGUTZA MEREZIMENDU OROKORTU BEZALA ONARTZEA, BAINA EZ EUSKARA?”

Eremu mistoko lanpostuetan euskararen ezagutza meritu gisa baloratu ahal izatearen aurka agertu da Nafarroako Kontseilua. Ebazpena gogor salatu du Euskalgintzaren Kontseiluak.

2024-02-29

“EHUko zuzendaritzari eskatzen diogu Israelgo Estatuaren instituzio, enpresa, unibertsitate eta ikerketa zentroekin harremanik ez izatea”

EHU-KO KLAUSTROAREN GEHIENGOA



TEKNOLOGIA

Kontzientzia kolektiboa



DIANA FRANCO

Ez dut argi kontzientzia kolektiboa zelan ulertu ohi den; zutabe honetan honela ulertzen dut: momentu bat non gizarteko pertsona gehienak errealitate baten gainean ulermen partekatu bat dugun. Adibidez, denok ulertzen dugu zeinen garrantzitsua den etxebizitza bat izateko aukera bizitza duin bat izateko bidean, denok ulertzen dugu elikadura on batek duen garrantzia modu osasuntsuan hazteko bidean...

Bada, uste dut eremu digitalaren negozio ereduaren inguruan eta gure bizitzetan izan dezaketen eragin kaltegarriari lotuta ere nolabaiteko kontzientzia kolektiboa hedatzen ari dela. Pertsona gehienek ulertzen dute online egiten duten jardueraren jarraipen etengabekoa egiten zaiela. Ulertzen dute egindako bilaketan harira publikitatea eta gomendio automatizatuak jasoko dituztela, ulertzen dute cookiak onartzerakoan askotan webgune horren "bazkide" ugariekin partekatuko direla bere datuak. Horren aurrean, ordea, zelan jokatu ez dago oso argi. Eduki sortzaileek bizimodua aurrera atera nahi dute eta negozio eredu ezberdinak dituzte horretarako, euren artean zelataritza digitalaren bidea.

Zelataritza digitalerako izeberga den sistemaren puntan daude zenbait sare sozial, eta datuak horiengana doaz, ibaiak itsasora doazen moduan. The Markup webgunean Consumer Reports-ek egindako ikerketa batean oinarrituta (*Who shares your information with Facebook*, Nork partekatzen du zure informazioa Facebookekin), zenbait datu interesgarri partekatu dituzte, tartean honakoa: 709 boluntariok euren Facebook-eko artxiboko azken hiru urteetan ateratako datuen arabera (https://accountscenter.facebook.com/info_and_permissions estekan lortu daiteke), batez beste 2.230 enpresak datuak bidali zizkieten Facebooki.

Agian ikerketa oso xumea da, baina interesgarria da ulertzeko sare sozialen negozio ereduaren dinamika eta dugun kontzientzia kolektiboaren zentzua. Orain, kontzientzia hori hartuta, pixkanaka bizitza hobea izateko bidean, erabiltzen ditugun tresna digitalen inguruan ere pentsatu beharko dugu. ●

NAZIOARTEA



EBko enbaxadorea Senegalen Irene Mingasson eta Senegalgo indar armatuen ministro Sidiki Kaba, GAR-SI-ko kideen aurrean 2019ko apirillean. Argazkia: UE Senegal

Europako dirua eta formakuntza, errepresiorako Senegalen

AXIER LOPEZ

Al Jazeera hedabideak eta Fundación por Causa erakundeak berriki egindako ikerketaren arabera, Europar Batasuneko funtsekin sortu, hornitu eta trebatutako Senegalgo GAR-SI terrorismoaren aurkako unitate berezia, aldaketa demokratikoen eta ustelkeriaren aurkako protestak zapaltzeko baliatu du Senegalgo Gobernuak. Herritarren mobilizazio horiek nagusiki izan dira oposizioaren ordezkari nagusi Ousmane Sonkoren jarraitzaileek sustatutakoak. 2021etik, Sonkoren aurkako epaiketak eta ondorengo epaiak manifestazioak eta istiluak eragin dituzte herrialde osoan.

GAR-SI taldeko kideek gas negar-eragileak jaurti zituzten Sonkok iazko maiatzean antolatutako protesta-karabana baten aurka. Leku hori ehunka kilometrotara zegoen, EBk finantzaturako unitate horiek jardun behar zuten tokitik: Malirekiko muga, "mugaz gaindiko krimenaren aurka" borrokatzen. Senegalgo elite talde horrek prestakuntza eta tutoretza jaso ditu, "ETAren aurkako borrokan izandako esperientziagatik" Euskal Herrian ezauna zaigun Espainiako Guardia Zibilaren GAR unitateen eskutik, Europako beste indar batzuen artean.

KRISIA ETA EXODOA

Herrialdeak krisi politiko eta ekonomiko larria bizi du. Otsailaren 25ean egitekoak ziren hauteskundeak atze-


ratu ditu Macky Sall presidentek. Atzerapena "kolpe konstituzionaltzat" jo zuen oposizioak. Azkenik, Konstituzio Kontseiluak Sall-en erabakia ezeztatatu du, eta ordutik, hauteskundeak noiz antolatu zain daude herritarrak. Sonkori bozetan parte hartzeko eskubidea kendu diote eta, beraz, Bassirou Diomaye Fayeri babesa eman dio. Diomaye ere atxilotuta dago, baina bere hautagaitza, momentuz, onartu diote.

Inflazio larriaz gain, arrantza gutxitzen ari da. Familia askorentzat jarduera ekonomiko nagusietako bat da, eta Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearen arabera, arraina eta itsaskiak senegaldarren elikaduran animalia-proteinaren %40 baino gehiago dira. Arrantzaren murrizketaren atzean daude gehiegizko ustiapena, legez kanpoko atzerriko arrantza eta industria handien monopolioa.

Hala, askok etorkizun hobeari bila jo du kanpora. Prezio altuegia ordainduta, ordea. Hogei pertsona baino gehiago hil eta dozenaka desagertuta daude, otsailaren 28an Kanariar uharteetara iritsi nahi zuen ontzia Senegalgo kostaldean hondoratu ostean. Migrazioetarako Nazioarteko Erakundearen arabera, mila pertsona inguru hil edo desagertu ziren 2023an Kanarietako bide horretan. Alegia, batez beste, bederatzik ordutik behin pertsona bat hil zen. ●

URDAIBAICO GUGGENHEIMEN AURKA

BILBO / Urdaibaiko Guggenheimen proiektua bi urtez etengo dutela iragarri zuten urtarrilean Lakuak eta Bizkaiko Aldundiak, baina museoa eraiki ez dadin borrokan jarraitzen dute ekintzaileek. Futuro Vegetal aktibista klimatikoen azken ekintza da horren lekuko: Bilboko Guggenheim museoaren fatxadara pintura gorri eta beltza bota dute, salatzeko Guggenheimeko Patronatua murgilduta dagoela "natur ondarean atzera-bueltarik gabeko kaltea eragingo duen makroproiektuan". / Argazkia: Futuro Vegetal



AP

2024ko pastoralak

 DANTZAN.EUS

ZE PASTORAL?

Matalaz, matxinatuen buruzagi apaiza

Bernard Goihenetxe "Matalaz" (Mithikile, ? - Lextarre, 1661) apaizari buruzko pastorala egin-go dute Oilarrak abesbatzaren 30. urteurrena ospatzeko. 1661an Zuberoak laborariek nobleziaren eta Mauleko burgesiaren aurka hasi zuten matxinadaren burua izan zen.

Julia Fernandez Zabaleta, maistra aurrerakoi eta abertzalea

Iruñean Julia Fernandez Zabaleta (1898 - 1961) pastorala prestatzen ari dira. Iruñean jaio eta bertan egin zituen irakasle ikasketak Fernandezek. Bere bizitzan nabarmentzekoak dira euskal kulturaren eta euskararen sustapena, emakumeen eskubideen aldeko borroka eta pedagogiaren berrikuntza eginiko lana.



Inesa Gaxen, sugarretatik salbatu zen sorgina

Inesa Gaxen (Bastida, 1566 - Lapurdi, XVII. mendea) buruzko pastorala plaza-ratuko da Xarnegun. Sorgin izateaz akusatatu zuten Gaxen eta sorginkeriagatik bitan giltzapetua izan zen. Bordeleko parlamentuan epaitu zuten hemezortzi urte zituela; libre utzi zuten. 1611. urtean, preso hartu zuten berriro ere, eta beste behin, kargurik gabe utzi zuten. Hondarribiko herritar askok ez zuen epaia onartu, eta, azkenean, Hendaiaiko mugan utzi zuten.

Ligetx koblakaria(k), Ligetx anai-arreben bizitza

'Ligetx koblakaria(k)' pastorala prestatzen ari dira Gamere-Zihigako herritarrek. Luis Ligetx (Larraine 1901 - Zihiga 1940) koblakari larraintarren biziari buruzkoa da antzezpena.

NOIZ ETA NON?

Martxoak 23, Urdiñarbe (Z): Matalaz
Apirilaren 6, Mitikile (Z): Matalaz
Apirilak 13, Baigorri (NB): Matalaz
Maiatzak 4, Iruñea (N): Julia Fernandez
Maiatzak 12, Iruñea (N): Julia Fernandez
Ekainak 15, Bastida (NB): Inesa Gaxen
Ekainak 16, Bastida (NB): Inesa Gaxen
Uztailak 28, Gamere-Zihiga (Z): Ligetx
Abuztuak 3, Gamere-Zihiga(Z): Ligetx
Irailak 21, Bardoze (L): Inesa Gaxen
Irailak 22, Bardoze (L): Inesa Gaxen

OPARI EDERRA BRUSELAK TRANSGENIKO EKOIZLEEI: BUKATU DIRA ORAIN ARTEKO KONTROLAK

Agroindustriaren alde doan erabaki garrantzitsua hartu zuen Europako Batzordeak otsailaren 7an: NBT *New Breeding Techniques* teknikaren bidez genetika moldaturik duten haziak ez ditu transgeniko gisa sailkatuko. Hori horrela, transgenikoei orain arte egindako kontrol, segipen eta betebeharrak ez zaizkie bideratuko. Azkenean, hazien pribatizazioaren bidezko biziaren gaineko kontrola helburu duten multinazionaleri egindako opari ederra dugu hor. GEO Genetikoki Eraldatutako Organismoek ia 30 urte betetzekoak dituztela, sustatzaileek hitz emandakoari begira jarri gara, bilan ttipi bat egiteko asmoz.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

GMO edo GEO (Genetikoki Eraldatutako Organismoa) izendatu beharrean NBT edo TGB (Teknika Genomiko Berria) izena jarri, oinarrian metaturiko fama txarrez bereizteko eta aitzina. Funtzionatzen du jukutriak: Europako Batzordeak otsailaren 7an onartu zuen orain artean transgenikoei jarritako debeku eta betebeharrak TGBei ez bideratzea. 307k bozkatu zuten horren alde, 236k kontra eta 41 abstenitu ziren. "Historikotzat" jo du bozketa txostengile Jessica Polfjärdek: "Hamarkadako blokeoa eta gero, azkenean, zientziaren, elikagai-segurtasunaren eta europar laborarien sostengatzearen alde bozkatu du Parlamentuak".

Zientziaren esparruan bideraturiko transgenikoen gai konplexua jendarteratzea lortu baldin bazen ere –azkenean, gure plateretan bukatzen dutelako–, badirudi TGBak urrun gelditzen zaizkigula.

"GEO berria" izendapena jartzen diete hainbat zientzialaririk, hain justu, bien artean dagoen lotura zuzenaz ohartarazteko. Ekoizleek eta aldekoek diote, ordea, teknika ezberdina bideratzen dienez ez direla transgenikoak: GEOetan kanpoko gene bat gehitzen bazaio organismoari, TGBetan ezer gehitu gabe, organismoaren genetika dute moldatzen. DNA mozteko, desaktibatze edota moldatzeko balio duen CRISPR CAS 9 izeneko tresnari esker lortu daiteke esku-sartze hori. Horrela lortu ditzakete gluten gutiko garia, idorteari aurre egin dezakeen artoa edota birus zehatz batzuei erresistente diren tomateak. Aldekoen hitzetan, laborantzak "berezkoak" dituen aitzinamenduak dira teknika horren bidez lorturiko haziak: "Nekazaritza iraunkorragoa, lehiakorrak eta muturreko baldintza meteorologikoen aurrean indartsuagoa dugu hor,

gainera, pestizida eta ongailu gutiagorekin", Polfjärden hitzetan.

Aurkakoek, ordea, arrisku andana ikusten dizkiote Europako Batzordearen bozketari. Hasteko, transgeniko gisa ez sailkatzeak erran nahi duelako transgenikoei bideratu segipen zientifikoak ez direla eginen, eta gainera, ez dugula jakin zein elikagaietan diren, trazabilitatea ez dutelako beharturik. Ingurumen- eta osasun-segurtasunaren alorrean "atzerapauso handia" da Greenpeace arabera. TGBak transgeniko gisa ez definitzearen aurka kokatu da Frantziako ANSES Elikagaien, Ingurumenaren eta Lanaren Osasun Segurtasunerako Agentzia ere, hain justu, sailkapen hori "zientifikoki ez delako justifikatua".

Gainera, ez da argi zer nolako bila-kaera ukanen duten gerorako zabalpen naturalean. Erleen polinizazio zein haize bidezko hedapena, ezinkontrolatuzkoa

**TRANSGENIKOAK DIRA**

NBT *new breeding techniques* teknikaren bidez moldaturiko geneak transgenikoak direla azaltzen dabilta Greenpeace bezalako Gobernuaz Kanpoko Erakundeak.

FNSEA

da polenaren bidaia, eta beraz TGBen barreiatzea. Ikusirik, trazabilitatea ez zaiela bideratuko, guhaurk jakin gabe erabiliko dira aire librean –hori, GEOekin ez da horrela–. Ekoizpen ekologikoan dabilzan laborarien kezka nagusia izan da betidanik hori, eta TGBekin hor segitzen du arriskuak. "Egun tristea da [Europako Batzordearen bozketarena] laborarientzat eta naturarentzat", eurdiputatu ekologista Benoît Biteauren arabera.

GEO-EK KASIK 30 URTE: ZER NOLAKO BILANA?

Lehen transgenikoak 1996an merkaturatu zirenetik zer nolako bilana egin dezakegu? Mundu mailan landuriko lurren %10 transgenikoekin da, eta erabat ezberdina da herri batetik bestera banaketa: AEBetan, Kanadan, Indian, Argentinan eta Brasilen dira %90. Lau

Mundu mailako hazien komertzializazioaren %60 lau konpainien esku da –Bayer, Syngenta, Corteva, BASF– eta horiek ere dute intsektiziden eta herbiziden merkatuaren %70a

landarek dute kasik monopolioa: soja (%52), artoa (%30), kotoia (%13) eta koltza (%5) eta gero datoz, kopuru ttipian luzerna, beterraba edota bestelako fruitu zein barazki batzuk. Europari dagokionez, bakarra da ekoizten: Mon-

santok (gaur egungo Bayer-ek) sortu zuen MON810 artoa –2010ean Amflora lursagarrak ere jaso zuen ekoizpeneko baimena, baina 2013an galdu zuen, komertzialki ez zelako interesgarria eta Europako Batzordeak ez zuelako baime nerako bide administratiboa behar bezala bete–. Bost herritan kausitu dezakegu, baina %95 Espainiako Estatuan eta Portugalen dira. Alemaniak, Austriak, Luxenburgok, Hungariak, Greziak, Bulgariak, Poloniak eta Frantziako Estatuak debekaturik dute ekoizpena. Haatik, inportatu dezakete eta gaur egun 70 GEO mota daude komertzializaturik gizakien edota animalien janarentzat. Trazabilitateari dagokionez, transgenikoz osatua izanez gero etiketan jarri beharra dute ekoizleek, baina, transgenikoak janez hazitako animalien okelaren, arrautzen edota esnekiaren kasuan ez dute ezertan zehaztu beharrik.


Mundu mailako goseteari aurre egiteko bidea izanen zela hitz eman baziguten ere, horrelakorik ez da gertatu. Are okerrago, laborariaren burujabetza ahuldu egin dute eta horrek pobreziarekin errimatu dezake Hegoalde Globaleko herri txiroetan. Hain zuzen, patentaturiko haziak urtero arraerosi behar izaten dituztelako, multinazionalen menpe bihurtuz.

Osasunari eta ingurumenari dagokionez, transgenikoen eragina ez da argi. Kalteak frogatzen dituzten ikerketa zientifikoak baldin badira, aldrebes, beste batzuek arrisku-ezaz ohartarazten dute. Arazoa da interes-aurkakotasuna kausitzen dugula ikerketa frankotan: Frantziako INRA Institutuak 2016ko abenduan *Plos One* komunikabidean plazaraturiko ikerketari segi, interes-aurkakotasuna zegoen aztertutako 672 lan zientifikoen %40an. Transgeniko ekoizleek hein batean edo osoki diruztaturiko ikerketak dira, edota zuzenean agroindustrial horiek bideraturiko ikerketak dira.

Funtsean, iazko irailaren 29an Corporate Europe Observatory GKEak argitaraturiko txosten berri batek berretsi egin zuen neutraltasun-ezaren presentzia TBG edo "GEO berriei" dagokionez. Aldeko adierazpenak biderkatu dituzten hiru

Agrokimikaren oligopoloa

MRD: bilioi (grafikoko zifreetan)



ITURRIA: Pestiziden Atlas 2023 (2020ko datuak)

Martxokoa, kalean!

EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?

- EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT
- BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT
- 10 ZENBAKI URTEAN

Egin harpidetza aizu.eus atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.



LURREN %10 Mundu mailan landuriko lurren %10 transgenikoei bideraturik da. Hala ere, ez dira mundu osoan landatzen eta AEBetan, Argentinan, Brasilen, Kanadan eta Indian dira landareen %90ak.

erakunde zientifiko nagusiak –European Plant Science Organisation (EPSO), All European Academies (ALLEA) eta European Sustainable Agriculture Through Genome Editing (EU-SAGE)– ikerturik, Bayer/Monsanto, BASF, Corteva edo Syngenta transgeniko ekoizle nagusiekin lotura zuzenak dituztela argiratu dute. Demagun, EPSOren baitan nekazaritza teknikei buruz dabilzan kideen %64 eta EU-SAGEko %32 dira transgenikoen komertzializazioaren esparruan sartuak, eta EPSOko %38ak eta EU-SAGEko %23ak dute transgenikoen gaineko patenteekin lotura.

Azkenik, transgenikoei pestiziden gutitzea ekarriko zutela zioten, baina horrelakorik ez da gertatu. Laborantzari

TGBak transgeniko bezala ez sailkatzeak erran nahi du transgenikoei bideratu segipen zientifikoak ez direla eginen, eta gainera, ez dugula jakinen non diren, trazabilitatea ez dutelako beharturik

dagokionez bi transgeniko mota gailentzen dira: edo, herbiziden parean eusteko molekula gehitzen zaio landareari, edo, zuzenean molekula intsektizida bat sartzen zaio intsektu suntsitzaileak hiltzeko. Baina, Monsanto/Bayer berak aitortu behar izan zuen transgenikoei egokitu zaizkiela intsektu eta "belar tzarrak". Pestiziden zein intsektiziden erabilpenaren gutitzea ez da beraz gertatu, eta alderantziz, emendatu ere da gureka. Ondorioz, ondokoa dio *OGM: Quel bilan?* (GEO: zein balorapen?) artikuluan Mathilde Sorettek: "Ingurumenarentzat eta osasunarentzat GEOek duten kaltegarritasuna ezerk ez badigu frogatzen ere, pestizida batzuen arrisku kantzerigenoa, ordea, argia da eta ez da gehiago frogatzekoa".

PATENTEA, BIZIA PRIBATIZATZEKO

Hazien patentatzeak ondorioztaturiko bizidunaren pribatizazioa dugu kalteen artean, eta funtsean, oinarrian hori dute helburu multinazionalak. Gaur egun, mundu mailako hazien komertzializazioaren %60 lau konpainien esku da – Bayer/Monsanto, Syngenta, Corteva eta BASF– eta horiek ere dute intsektiziden eta herbiziden merkatuaren %70a.

Europako Batzordeak baldin badio TGBak transgeniko sailkatzeak trabak gehituko lizkiokela munduko elikagai-segurtasuna lortzeko bideari, nabarmendu beharra dago hazi guztiak multinazional bakar batzuen esku gelditzeak dakarrela benetako arriskua. "Landare TGBen patentatzearen" aurka agertu bada ere Brusela, jakin behar da arazoa ez duela gutitzen, TGB tekniken patentatzea, ordea, ez duela errefusatu. Hori horrela, biziaren gaineko kontrola areagotu besterik ez zaigu eginen, eta instituzioen eta herritarren gainbegiradarik gabe, gainera. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Yuk Hui

ZENBAT BURU, HAINBAT TEKNOLOGIA



EZ DUT USTE MUNDU BIDEZKOAGORIK LORTUKO DUGUNIK DATU GEHIAGO BILDUZ



Pasa den urtarrilean, Yuk Hui filosofoak hitzaldi bat eskaini zuen –solasaldi bat, hobeto esanda– Donostiako Tabakalera. Azken urteotan oihartzun handia izan du haren lanak, eta goraino bete zen aretoa. Besteak beste, monoteknologismoaren pentsamendu-ildoak kritikatu izan du Huik –monolaborantzarekin alderatu liteke agian–, eta teknoaniztasuna eta kosmoteknika aldarrikatu. Silicon Valleyko kontakizun bakarraren aurrean, lekuan lekuko jakintzak, kosmobisioak eta, noski, teknologiak.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Gaur egun teknologiaren filosofian diharduzu, baina ingeniari-tza informatikoa ikasi zenuen berez. Nola sortu zitzaizun filosofiarekiko joera?

Ingeniaritza informatikoa ikasten ari nintzenean asko interesatzen zitzaidan adimen artifiziala (AA), eta ahal bezain-beste eskola hartzen nituen arlo horretan. Eta horren bidez ohartu nintzen AAren barruko galdera asko filosofikoak direla egiaz. Zer da hautematea? Zer da adimena? Zer da ekintza morala? Galdera horiek, ingeniari informatiko gisa, ez dituzu egiten. Programatzen ikasten duzu. Beste batzuek garatutako algoritmoak kopiatzen, itsasten eta berrantolatzen dituzu, baina hor azpian badaude galdera filosofiko horiek denak. Orduan,

filosofia pasa nintzen, eta ezustean Ben Stiegler filosofoa ezagutu nuen. Hark asko eragin zidan, eta nire tutore bilakatu zen.

Zure estreinako liburu-etako batean Txinari erreparatu zenion. Nolatan abiatu zen ikerketa hori?

Istoria luzea da. Teknologia buruz hainbat modutan hitz egin daiteke, mahai bat egiteko teknologiaz hitz egin genezake adibidez, baina teknologia kontzeptu gisa ere azter daiteke. Edo harekin lotuta dagoen beste kontzeptu bat, naturaren kontzeptua. Zer da natura? Ba al dago natura dei daitekeen zera bat? Azken 20 urteetan lan antropologiko ugari egin dira naturaren kontzeptua za-

lantzan jartzeko. Besteak beste, antropologo batzuek argudiatu dute naturaren kontzeptua, gaur egun ezagutzen dugun eran, oso modernoa dela, Europako modernismoaren emaitza. Hots, naturaren eta kulturaren arteko oposizioan oinarritzen da. Naturaren kontzeptua ezin da isolatu bere testuingurutik, eta hainbat natura egongo dira, hortaz. Horri buruz irakurtzen ari nintzela, nire buruari galdetu nion ea zer gertatzen den orduan teknologiaren kontzeptuarekin. Azken batean, natura lotuta dago teknologiaren, artifizialtasunaren eta kulturaren kontzeptuekin, besteak beste. Orduan, hainbat natura badaude, hainbat teknologia egongo dira? Hori izan zen nire lehen galdera.



Yuk Hui

HONG KONG (TXINA)



Ingeniaritza informatikoa ikasi zuen Hong Kongeko unibertsitatean; ondoren, doktore-tesia filosofiaren arloan egin zuen, Goldsmith Unibertsitatean (Londres, Ingalaterra). Gaur egun Erasmus Unibertsitateko irakaslea da Rotterdamen (Herbehereak). Teknologiaren eta filosofiaren arteko loturak ikertzen ditu, eta hainbat liburu idatzi ditu gaiaz. Gehiago ezagutu nahi baduzue, sarbide ona zenukete *Fragmentar el futuro* (Caja Negra, 2020) saiakera bilduma.

Eta zer garapen izan du teknologiaren kontzeptuak Txinan?

Historiari erreparatzen badiogu, gauza jakina da XVI. mendearen aurretik teknologia eta zientzia askoz garatuago zeudela Txinan eta Indian, European baino. Baina XVI. mendean zerbait aldatu egin zen, goitik behera aldatu ere. Mende horretatik aurrera, zientzia eta teknologia modernoa European bakarrik garatu ziren, ez Txinan eta Indian. Eta horrek esan nahi du segur aski askotariko pentsamendu teknologikoak existitu izan zirela ordura arte. Teknologiaren kontzeptu edo ulerkerak desberdinak zeuden, eta haiei tiraka, Txinan, Indian edo Japonian beren inguruarekin jarduteko beste modu batzuk garatu izan zituzten.

Nork bere sinesmen eta kultura oinarrituta, alegia?

Bai, norbere kosmologian oinarrituta. Kosmologiek erregulazio gisa ere balio dute. Adibidez, ez duzu arrain txikirik arrantzatuko, bestela batere gabe geratuko baitzara hurrengo urterako. Horretan guztian ondorioztapen kosmologiko, epistemologiko eta ontologiko desberdinak daude. Zer da gauza bat? Zer da animalia bat? Zer da zuhaitz bat? Zer da bizitza? Erantzunak era askotakoak izango dira lekuaren arabera, eta pentsamendu-konstelazio horrek ematen du bidea teknologia jakin bat gara dadin. Aldi berean, teknologiaren garapen jakin batzuk mugatzen dira. Hau da, badakizu, zure kosmologiaren arabera, gauza batzuk ez zenituzkeela garatu beharko.

Txinaren kasuan, Tao eta Qi kontzeptuak oso garrantzitsuak izan ziren, adibidez.

Txinako pentsamendu teknologikoa berreraikitzen saiatu naiz. Horretarako bi kategoria filosofiko hartu ditut, antzinakoak, Tao eta Qi, hain zuzen. Txinako pentsalariak bi kontzeptu horien bateratzeaz hitz egin dute betidanik, baina pentsamendu hori gerora ez da artikulatu. Ahaztu egin da, kasik, Europako modernizazioa sartu zelako lehenik eta gerora marxismoa bihurtu zelako Txinako ideologia ofiziala. Eta beste ikuspegi teknologiko hauek ez dira esploratu.

Ikerketa egiteko garaian, zer helburu zenuen? Edo zer ondorioztara iritsi zinen?

Batetik, teknologiaren oinarrian beti

daude esan gabeko ikusmolde kosmologiko, epistemologiko eta ontologiko batzuk, munduko lekuaren arabera. Ez dago logika arrazional eta unibertsal pururik, logika horiek beti daude leku zehatz batean kokatuta; sinesmen eta uste batzuek ahalbidetzen dituzte, baita mugatzen ere. Bestetik, posible da hori dena sistematikoki aztertzea. Nik Txinaren kasuan halaxe egin nuen, bi kontzeptu antzinako hartu eta pentsamendu hura berreraiki nuen, baina hori adibide bat baino ez da, berdin berreraiki liteke Afrikako edo Latinoamerikako pentsamendu teknologikoa.

Hala eginda, beharbada hobeto ulertuko genuke zer egin dezakegun teknologiarekin gaur egun, zeren orain teknologiaren diskurtso bakar batek gidatzen gaitu. Determinismo teknologikoak, hain zuzen. Teknologiak ezartzen du dena. Aireportuko liburu-dendara joaten zarenean, liburu guztiak dira “Nola eraldatuko duen AAK ez dakit zer negozi”,” “Nola eraldatuko duen artea ChatGPT-k”, etab. Baina ez dut uste hori oso lagungarria denik gure aukera propioak ulertzeko. Silicon Valleyko diskurtsoak gidatzen gaitu. Eta haiek hainbat fantasia, gezur, zurrumurru eta profetia zabaltzen dituzte. Kontuz ibili behar dugu horrekin.

Horren aurrean, teknoaniztasuna proposatzen duzu.

Teknologia-aniztasunean pentsatu nahi dut, baina ez horretan bakarrik. Matrize bat eraiki nahi dut, hiru aniztasun-mota lotzen dituen: teknoaniztasuna bera, nooaniztasuna –hau da, pentsamenduaren aniztasuna– eta bioaniztasuna. Hiru horien uztarketa proposatzen dut gaur egun dugun egoera pentsatzeko.

Nola lotzen dira hirurak?

Bioaniztasunari buruz hitz egiten dugunean, ulertu behar dugu gizakien jarduerak ekarri duela, neurri handi batean, bioaniztasuna murriztea: teknologiaren edo pestiziden erabilerak, esaterako. Espezie asko suntsitu dira. Garai batean, lekuaren arabera, jendeak modu batean edo bestean aurre egiten zien arazoei, era askotako jakintzak zeuden. Pestizidak erabili ordez, beste konponbide bat baliatzen zuten. Baina pestizidaren adibidearekin ikusten dugu konponbide bakartzat hartzen dela, aintzat hartu gabe nola eragingo dion inguruneari. XX. mendean horixe gertatu da. Arazoari, pestizida.



Eta ondoren hondamendia iritsi da, eta ez dakigu zer egin. Ezin da bioaniztasunaz hitz egin teknoaniztasunaz hitz egin gabe. Ezin dugu esan “babestu txoriak”, eta kito. Orobat pentsatu behar dugu zer teknologia-mota darabilgun, zer-nolako jarduera dugun inguruarekiko.

Teknoaniztasunaren, nooaniztasunaren eta bioaniztasunaren matrize honekin, beste gauza batzuei buruz ere pentsatu ahal dugu, adibidez: adimen artifizialen aniztasuna dago? Nola susta genezake adimen artifizialen aniztasuna?

Ez dago aniztasunik adimen artifizialean, ezta?

Ez. Eta, bestalde, AAn ez da ulertzen adimena zer den ere. Hasieran, ikuspegi kartesiar eta arrazionalista bat nagusitzen zen. Munduaren errepresentazio arrazionalista bat garatu nahi zen, sinboloen bidez. Sinboloetatik inferentzia logikoak egin zitezkeen, eta adimena horren arabera garatu, gogoak horrela funtzionatzen zuelakoan. Baina gero ikuspegi horrek galdu egin zuen. Sare neuronalak agertu ziren, ikaskuntza automatikoa agertu zen. Horiek denak konexionismo-tik datoz. Konexionismoan, gogoak ez dago errepresentazio sinbolikoz beteta; aldiz, gogoak sare bat da, eta eguneratu egiten da dinamikoki. Era horretako ikaskuntza

automatikoa daukagu gaur egun. Adimen artifizialaren barruan ere aldaketak gertatu dira adimena pentsatzeko moduen harira, baina adimenaren gaineko oso pentsamolde mugatua da oraindik ere.

Zer dela eta?

Enpirismoan oinarritzen delako; zenbat eta datu gehiago, orduan eta emaitza hobek. Uste dute datu gehiagorekin konponduko dutela arazoa. Adibide bat jartzearren: aurpegi errekonozimenduak ez ditu pertsona beltzen aurpegiak identifikatzen; hor indarkeria handia egon da. Horri erantzuteko, esaten dute: goazen aurpegi beltz gehiagoren irudiak hartzera eta datu-input gehiago sartzera. Baina benetan lortuko al dugu mundu bidezkoago bat datu gehiago bilduz? Ez dut uste. Adimenaren ulerkera oso mugatua da hori. Enpirismoaren arabera —eta korrante horren garaipena bizi dugu— mundua egitatez osatuta dago, eta adimena litzateke egitate horiek aztertze gaitasuna. Baina adimena ez da hain sinplea. Dibertsifikatu egin behar dugu. Adimena ere egunerokoan erabiltzen dugu, gure komunitateekin harremanean.

Edonola ere, galdera horiek ez dira mahai gainean jartzen. Honelako kontuak bakarrik aipatzen dira: nola aldatuko duen ChatGPT-k artea, edo nola aldatuko duen honako hau edo harako hura, nola etorriko den langabezia masiboa... Langabezia masiboa, benetan?



Ezin da bioaniztasunaz hitz egin teknoaniztasunaz hitz egin gabe. Ezin dugu esan ‘babestu txoriak’, eta kito”

Ez duzu uste halakorik gertatuko denik?

Langabezia masiboak kapitalismoa suntsituko luke, eta kapitalismoak ez du lagako halakorik gerta dadin. Industria berriak garatuko dira langileak esplotatzeko. Lantegien automatizazioaren kasuan, adibidez, behargin ohiak Uber gidari bihurtuko dira, edo janari-banatzaila... Hori gertatu da jada azken hamarraldietan.

Azkenaldian kaleratu duzun liburuetako batek etorkizuna dakar izenburuan. Etorkizuna zatikatu deitzen da, hain zuzen. Zergatik izenburu hori? Nola ikusten duzu etorkizuna?

Teknologiari buruzko diskurtso estuen ondorioz, oso zaila gertatzen zaigu etorkizun posibleei buruz pentsatzea. Eta

uste dut askotarikotasunetik irudikatu behar dugula etorkizuna. Baina, nola? Nire proposamena da iraganari eta orainari begiratzea, eta pentsatzea zer izan daitekeen, nola parte har dezakegun, modu konkretuan, teknologien garapenean, komunitateen garapenean, hezkuntza estetikoaren garapenean... Zeren, gaur egun, etorkizunari buruz hitz egiten dugunean gutxi-asko apokaliptiaz hitz egiten dugu.

Nagusiki bi aterabide proposatu ohi dira: bata, hanka egitea, Martera, adibidez, Lurra suntsitzen ari diren logika berdinak han ezartzera, edo, bestela teknologia alde batera utzi eta iraganeko moduetara itzultzea, baina zentzu batean ezinezkoa da hori ere. Tartean, badira alternatiba konkretuak.

Bai, harrিতuta geratu naiz, jakin baitut zenbait egitasmotan aintzat hartu dutela teknoaniztasunaren nire proposamena. Adibide Brasileko abokatu batek eta haren taldekoek idatzi zidaten. Antza, orain Amazonasen Internet-sarbidea daukate Elon Musk-en Starlink-en bidez, eta nirekin harremanetan jarri diren talde honetako kideak pentsatzen ari dira ea zer gertatuko den horren

ondorioz oihaneko komunitateetan. Amazoniaren modernizazioa irudika dezakegu, baina zer esan nahi du horrek? Amazonen produktuak eskatu eta Amazoniara iritsi ahal izango direla drone bidez, esate baterako? Agian bai, baina agian hori ez da gerta litekeen gauzarik onena. Agian bestelako zerbait sor liteke. Beraz, ikusi dut badaudela zenbait proiektu eta ahalegin, teknoaniztasunaren aukerak esploratzeko, baina, lehenik eta behin, teknologiari buruzko narratiba estu horiek suntsitu behar dira.

Azken gai bat ekarri nahi nuke. Dekolonizazioa. Orain artekoan ez duzu esplizituki aipatu, baina zure liburuaren sarreran agertzen da, eta azaldu duzun guztian ere iruditzen zait oso presente dagoela ildo hori. Nola ulertzen duzu?

Dekolonizazioari buruz hitz egiten dugunean, narratibaren ikuspegitik aritzen gara, baina ez gara sartzen teknologiaren garapenean. Eta kontua da modernizazio europarra teknologiaren bidez ezarri zela, eta jakintza-mota modernoa ere teknologiaren erabileraren bidez hedatu zela. Beraz, dekolonizazioari buruz pentsatu nahi badugu, oso

serio hartu behar dugu teknologiaren auzia, baita lokaltasuna ere. Zein da hemengo lokaltasuna, Donostiarena? Eta Amazoniarena? Eta nola pentsa dezakegu aniztasun horren inguruan bioaniztasunaren, nooaniztasunaren eta teknoaniztasunaren terminoetan? Uste dut niretzat hori bestelako bide bat dela dekolonizazioaz pentsatzeko, soilik gure identitatean, narratiban edo historian pentsatu ordez —horretaz ere pentsatu behar dugu, noski—.

Esan nahi duzu gure kosmologiak lotuta egon behar duela erabiltzen ditugun teknologiek?

Loturarik ez badago, bi geruza bihurtzen dira, elkarrengandik aparte. Eta kosmologiari edo tradizioari dagokion geruza desagertu egingo da noizbait ere, museoan gordeko da, iraganari dagokiola. Museoaren errealitatean existituko da, baina ez da gurekin egongo, zeren beti sortu behar ditugu pentsamolde eta praktika berriak. Eta pentsamolde eta praktika berriak sortzeko zer behar da? Bada, esate baterako, elkarrekin bateragarriak ez diren bi gauza elkartzen direnean, bietako bat hautatu ordez, zerbait berria sortzen saiatzea, bateraezintasun hori kontuan hartuta. ●

Zientzia.eus

Behar dituzun erantzunak

Zientiari buruzko albisteak, audioak, bideoak, agenda, argazkiak.

26.000 edukitik gora.
Entzun, irakurri, ikusi... eta ikasi!

elhuyar
ezagutuz aldatzea



Olibondoen sendotasuna

2023ko urriaren 7tik gaiari nola heldu jakin gabe ibili naiz. Izan ere, zaila da emozionalki hainbeste ukitzen zaituen zerbaiten inguruan distantzia apur batekin jardutea; agian ezinezkoa da. Palestinako herriaren genozidio telebistatuak ezintasuna, txundidura, amorrua, eta hitzetan jartzeko zailak diren beste hamaika sentimendu azaleratu dizkigu askori. Horietako hainbat agerian geratu dira mundu mailan izandako elkarretaratze eta manifestazioetan. ARGIAk argitaratutako *Ez gure izenean* zerbaki berezian, modu xehean adierazi ziren gatazkaren egungo egoerara heldu bitarteko mugarri nagusiak, eta horren inguruko iritzi-artikuluak ere kontaezinak dira.

Begi bistakoa da azken zazpi hamarkadotan Israelek entzungor egin diola Nazio Batuen Erakundeak (NBE) 1947an argitaratutako ebazpenari (baita atzetik etorri direnei ere). Gorreria horri kritika egiteaz gain, sektore kritikoetatik seinalatu izan dira NBEk gai honekiko erakutsitako konpromiso txikia eta bere baitan dauden azpi-erakunde desberdinen arteko inkoherentzia. Inkoherentzia horien seinale dira, esaterako, NBEko Segurtasun Batzordearen azken erabakiak, edota erakunde bereko errefuxiatuen agentziaren jardunbidea.

Urteetan identifikatu ahal izan diren interes geostrategikoen artean, lankidetzak ekimen ugari jarri dira martxan Palestinako herriari laguntzeko, bai nazioarteko erakundeetatik, bai adminis-

Sentimendu
kontrajarria izan ohi
dut: laguntza ez da
gatazka konpontzeko
tresna, eta aldi berean,
hori gabe, egoera
larriagoa zatekeen

trazioetatik (zentralak eta deszentralizatuak), bai askotariko Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeetatik, baita brigadista eta bestelako boluntariotzetatik ere. Iritsi ahal izan den laguntza hori oinarritzeko beharizanetan, laguntza humanitarioan edota intzidentzia politikoan oinarritu da, besteak beste. Argi dago egindako horiek ez dutela gatazka konpontzeko gaitasunik izan; asko, ez ziren helburu horrekin jaioko, ziurrenik. Sentimendu kontrajarria izan ohi dut: laguntza ez da gatazka konpontzeko tresna, eta aldi berean, hori gabe, egoera larriagoa zatekeen.

Gurean, otsailaren 15ean onartu zen Lankidetzak eta Elkartasunari buruzko Euskal Lege Proiektua, kontsentsu zabalarekin, gainera. Kritikak izan ditu aurkeztu arteko bidean, besteak beste, finantzatzeko diren proiektuetarako



IRATI LABAIEN EGIGUREN
EHU-KO IRAKASLEA

epe luzeko begiradaren beharra, edota enpresa eta lankidetzako agente ez tradizionalen parte-hartzeko moduen eta baldintzetan dauden zalantzak tarteko. Legearen edukien indarguneen artean, egungo eredu ekonomiko kapitalistari egindako aipamena azpimarratuko nuke, eta zehazki, horrek sortzen duen ekoizpen- eta kontsumo-eredu ez jasangarriaren onarpena. Are gehiago, onarpen horri lotuta, testuan zehazten da egungo testuinguru konplexu honi aurre egiteko “euskal eragile instituzional eta sozial guztien” inplikazioa nahitaezkoa dela. Eta zentzu horretan, politiken artean egon daitezkeen inkoherentzia eta gatazkak txikitzeko beharraz ari da legea; nolabait, gainerako sailtako jardunbideek beste lurraldeetan izan ditzaizketen eraginaz jabetzeko.

Askotan pentsatzen dut zer gertatuko litzatekeen lege horretan aipatzen diren giza eskubideak, feminismoa, edota ikuspegi ekosoziala bestelako esparruetan txertatuko balira, inkoherentziak identifikatzeko bokaziotik haratago. Hainbatetan lankidetzak albo-politika moduan tratatu izan da, hots, politika biguna balitz bezala, krisi garaietan baztergarria dena. Segurtasunari eta merkataritzari loturiko bestelako politika gogorak azken horiekin lerrokatzeak sendotasuna emango lioke orotara egiten denari. Palestinako herriak sektore guztietatik merezi duen tratu uniforme eta sendoa bezala, haien ikur diren olibondoen parekoa. ●

Hezkuntza publikoaren pribatizazio ezkutua



TERE MALDONADO
FILOSOFIA IRAKASLEA



DOM CAMPISTRON

Lehen, ambulatortako sarreraren edo kontsultaren itxarongelan ohikoa zen gizon batzuk ikustea, trajez jantzita eta maletatxoekin. Ez zeuden txanda itxaroten medikuak ikus zitzan. Kontsultak noiz amaituko zain zeuden, berarekin egoteko, haren enpresak merkatura zer botika berri aterazituen erakusteko. *Merchandising* arrastoak uzten zuten euren atzean: boligrafoak, egutegiak, ohar-bloak.

Egun, ez dut uste komertzialak osasun zentroetara joaten direnik, baina horrek ez du esan nahi farmazia-industria erretiratu denik. Medikuntzako profesionalengana iristeko beste bide batzuk asmatu ditu, sotilak baina eraginkorra. Jakina da industria farmazeutikoa biltzar mediko gehienetan atzean dagoela. Agerikoa dirudi noraino baldintzatzen duen medikuen jardueraren medikamentuak errezetatzean. Gainera, dena delakotik zazpi pilula hartu behar badituzu ere, 40ko kutxa bat erosi beharko duzu, inork ez baitu legerik egin industria behartzeko pilula solteak saltzera. Hori bai botere faktikoa.

Osasunean urrunetik datorrena hezkuntzan orain ari da gertatzen (tira, aspaldiko kontua da ere). Hezkuntza negozio-aukera da enpresa handientzat, saldu beharreko produktu gisa eta esku-

biderik gabeko etorkizuneko langileen eskola gisa. Negozio bikoitza. Zerrenda amaiezina da: biltzar, jardunaldi, mintegi eta hitzaldiak, nazioarteko, kulturarteko, diziplina-artekoak, askotariko izenburuekin eta edizio anitzekin. Berrezko industria bihurtu da, begira gertu ospatuko diren aurtengo ekitaldi batzuen zerrenda, ez osoa:

Teknologia, hezkuntza eta garapenari buruzko urteroko nazioarteko XVIII. konferentzia; Hezkuntzari eta ikaskuntza-teknologia berriei buruzko urteroko XVI. nazioarteko konferentzia; Irakaskuntza-berrikuntzari buruzko XII. jardunaldiak, "Irakaskuntza berritzea hezkuntza-testuinguruetan: metodologiak, ikasteko espazioak eta estiloak"; Hezkuntza-ikerketari buruzko diziplina arteko nazioarteko XII. biltzarra; Teknologiak hobetutako ikaskuntzarako metodologia eta sistema adimendunei buruzko nazioarteko XIV. konferentzia; Sareko hezkuntza, berrikuntza eta irakaskuntzari buruzko X. biltzarra; XVII. nazioarteko biltzarra e-Learning eta pedagogia berritzailei buruz; Gizarte multimodal baterako hezkuntza-teknologia nazioarteko XXVII. kongresua.

Askok datorren urteroko edizioaren aurrerapena dute webgunean, jada. Harrantzekoa da hainbeste "espezialisten"

ekarpen eta hartu-emanekin ikasgelak dauden bezala egotea. Azken mendean kapitalismoak sortutako burbuila handienetako baten aurrean egon gintezke (nor ausartuko da hura zulatzen? EAEko gobernuak osatzeko aukerak dituzten hautagaiak ikusita, inork ez du egingo).

Baina kongresuen aurreko edizioetako aktetan murgiltzean, dena ez da hitzontzikeria eta kea, nahiz eta asko hala izan. Stephen J. Ball eta Deborah Youdell hezkuntzako soziologoek "hezkuntza publikoaren ezkutuko pribatizazioa" salatu zuten aspaldi (mundu-kongresu baterako egin zuten Atariko Txostenaren titulua da). Han azaldu zuten, ezkutuko pribatizazioak eta hezkuntza publikoaren merkantilizazioak ondorio izugarriak ditu, eta eragin zuzena du hezkuntza zer den ulertzeko moduan berean. Hezkuntza bezeroei (familiei eta ikasleei) saltzeko *zerbitzu* bihurtzen ari zela zioten, txikitatik kontsumitzailetzat eta markentinaren helburutzat hartzen baitira. Eta azpimarratu nahi dut hezkuntza publikoaren estalitako pribatizazio hori hezkuntza-erreformaren, modernizazioaren eta berrikuntzaren hizkuntzaren bidez ezkututzen dela. Txotxongiloak garela esatea gehiegikeriatzat jotzen baduzu, irakur ezazu Hezkuntza Legea edo aurreko zirriborroak, berdin dio. ●

Ez don hamahiru ertzetako bat



RUBEN SÁNCHEZ
BAKAIKOA
IRAKASLEA

Abel Enbeitak *Alea* astekarian galdetu zuen zenbat garen euskara kultur hizkuntza izatea nahi dugunok. Nago gutxiegi galdetu eta aztertzen dugula. Maiz erabilera aipatzean beste-lako hamaika mila daturi erreparatzen diogu, eta balirudike euskaldun baten-tzat euskara kultur hizkuntza izan ala ez izan, ez duela (ahozko) erabileran eragiten. (Ahozko erabilera “hutsa” eta gainerako erabilerak gehien bereizten dituen herrietako bat gara, seguru nago).

Zergatik jaisten da ume eta gazte-txoen artean erabilera arnasmune bategan? Beste jatorri batzuetako familiak herrira heldu direlako, edo umeek gero eta kultur (edo akultur) produktu gehi-ago kontsumitzen dutelako erdaraz telebistan, Interneten eta abarren?

Ez naiz arazo kolektiboak pertsoni-fikatu zale, baina izen-abizendun adibi-deak emango ditut, ez, ordea, inori errua egozteko asmoz: Iban Garcia *youtuber* azkoitiarrak bere bideoak gaztelaniaz egiten ditu (EITBrentzat ari ez bada) eta Zuhaitz Gurrutxagak eta Ander Izagirrek *Subcampeón (Txapeldunorde)* argitaratu dute berriki gaztelaniaz.

Duela urte batzuk galdetu nien bi ume euskaldun-zaharri *youtuber* edo antzeko zerbait egingo ote ziren... euskaraz. Behi-begiez begiratu ninduten: “Mesedez, zenbat jarraitzaile horrela?”.

Willis Drummond-ek utzi duela eta, Jurgi Ekizak Kazeta.eus-en hau esan du: “Talde anitzek erdi euskaraz eta erdi erdaraz egiten dute, erranez ‘hau da ene errealtatea’. Bistan da gure errealtatea dela, hala Willis Drummond-ek ere hamar kantutatik bederatzi frantsesez eginen lituzke”. Eta Cira Crespok *Berria* egunkarian: “Ze historia gutxi egin duten euskaldunek euskaldunentzat; hau da, euskaraz. Irudi du irakurle erdaldu-nen oniritzirik gabe ezin daitekeela historiarik egin”.

Bikoiztutako filmak ETB1etik desagertzen joan ziren, eta lau katu friki bai-zik ez ziren ohartu. Netflix euskaraz nahi dugu (ados, e!), baina ETB1en aurre-kontua ETB2rena baino zenbat aldiz da txikiago? Oraindik helduen alfabetatze eta euskalduntzea ez da doan, eta EAE santuan euskara ez da eskola-hizkuntza ume guztientzat.

Datorrela, arren, *Ez don hamahiru ertzetako bat...* Izan ere, eta barka gaizki esanak, baina iruditzen zait euskalgintza oraindik ere oso gizonezkoa eta oso zentrokoa dela. Lorea Agirre eta Idu-rre Eskisabelek proposatu zuten beste bide bat, azken urteetan gehien hazi eta eragin duen mugimendu feministarekin bat. Euskarak, ertzetan ere (lurralde zein gorputz), hizkuntz gatazkaren lehen lerroan hartzen du arnasa. ●

Ikastaroen kontra



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA
IDAZLEA

Izurrite bat ematen du. Ikastaroak eta ikastaroak daude, ezker-eskuin, gero eta gehiago, lanak eragiten (ahal) dituen arrisku psikosozialei aurre hartzeko, horiek *personalki* egokiago kudeatzeko. Zenbaitetan, langilea aritzen deneko erakundeak berak eskaintzen du *prestakuntza*. Eremu publikoan nahiz arlo pribatuan.

Langile publikoa da M. eta, berez, ez dago kurtso horien aurka. Beti ikasten ahal da zerbait. Gainera, kasuaren arabera, lanorduren bat erabilita egiten da ikastaroa; edo, lanorduetatik kanpo izan arren, doan egiteko *aukera* ematen da. Ez dago gaizki.

Lanak eragiten (ahal) dituen estresa eta antsietatea nonahi agertzen dira, eta kurioski, gordetzen aldi berean. Hori gero eta argiago dakusa M.-k. Bai eta kurtso horiek afera publikoaren gaineko debata desbideratzen (ahal) dutela ere: eta sinpleki, ustezko prebentzio-tresnen partez, lan baldintzak osasungarriagoak balira?

Hobeki pentsatuta, bai hasia dela M. ikastaro horien kontra posizionatzen. Ustez lagungarri gertatu nahi duten kurtsoek bi mezu dakartzatelako: pertsona dela enplegura egokitu behar duena –eta ez alderantziz– eta zama psikosoziala –balizko osasun galera– bere bizkar hartu behar duela langileak. ●

Urrezko arau bat



**BEÑAT MUGURUZA
ASEGINOLAZA**
IRAKASLEA ETA
IKERTZAILEA

Hika edo hitanoari buruz ari garela, edo, hobeto esanda, hitanoa “zuzen” erabiltzeari buruz ari garela, tarteka-marteka pizten denez debate txikiren bat –dela sare sozialetan, dela oraindik bizitza erreala deitzen diogun horretan–, ez ote den komeni hemen ere lerro batzuk idaztea horri buruz. Zein da gakoa? Bada, hitanoaren “sintaxizko urrezko arau bat” litzatekeena, Xabier Alberdi EHUko irakasle eta ikertzaile ohiaren arabera.

Azken ekarpenetako batzuk Xabier Olarra idazle eta itzultzaile tolosarrarenak dira, hilabeteotan bi testu jakingarri plazaratu baititu *31 esku-tik* blogean: *Hitanoa galderetan?* eta *Hitanoa harridurazkoetan?*. Artikulugileak horiexek galdetzen zituenez, hemendik ere galdera irakurleari: zer egingo dugu hitanoaren zuzentasunarekin? Mendeko perpausetan ez dela alokutiboa –“hikako forma”, esan dezagun– erabili behar, galderetan ere ez, baldintzetan ezta okurritu ere, harridurazkoetan zalantzak. Esate baterako, esan behar dela “bai, esan zidan/k etorriko dela”, eta ez “bai, esan zidan/k

Zer egingo
dugu hitanoaren
zuzentasunarekin?
Mendeko perpausetan
ez dela “hikako
forma” erabili behar,
galderetan ere ez,
baldintzetan ezta
okurritu ere

etorriko dunela/dukela”, eta berdin forma horien tokian tokiko aldaerekin. Edo arau hori izan dela, behintzat, tradizioak utzi diguna.

Xabier Alberdik duela 30 urte argitaratutako lan mardul batean idatzita utzi zuenez, 45 urtetik beherako gazteen (sic) artean ez ote zioten utzi urrezko araua errespetatzeari.

Eta eskola gehienetan ez denez apenas erakusten, eta bestela ere erkin xamar dagoen hizkuntza-tratamendua darabiltenei uneoro zuzentzen ibiltzea –zergatik eta ez dutelako tradizioaren arabera erabiltzen– ez denez bereziki jarrera estetiko gaur egun, kontuak ezin hobera egin.

Eta betiko galdera, tradizio hauekin zer egin: eutsi ala hautsi. Edonola ere, ba ote dugun indarririk, kasu honetan behintzat, tradizioari eusteko. Hain egoera kaxkarrean dagoen tratamendu informala mantentzearekin nahiko lan ez, eta orain “gazteei” esan behar diegu hori ez dela horrela, eta bestea ez dakit zer, eta entzuteko adineko jendeak nola egiten duen, ez dutela antzekorik entzungo haien ahotik? Beharrezko erresonantzia-kutxa hori edukiko bagenu ere, komeni litzateke horrela erabiltzea?

Edonola ere, begira zer egoera bixietara eramaten gaituen gai honek. Urrezko arauari estu-estu jarraituz gero, irakurle, behin honaino iritsita, nola dago idatzita testu hau, zuka ala hika? ●





HIZKI PIZTI

Ikas dezagun irakurtzen eta idazten

Jolasaren bitartez irakurtzen eta idazten ikasteko **material pedagogikoa**.

Bai ikaskuntza-irakaskuntzan, bai etxeetan erabili daitekeena.

Alfabetoko hizki bakoitzak eta hortaz soinu bakoitzak **Euskal Herriko animalia bat** irudikatzen du.



30€

Bidalketa gastuak 5€.
Bidalketa doan 40€-tik gorako erosketetan.

Kaxa barruan aurkituko dituzu:

Karta handiak: Hizkia larriz eta xehez aurkezteko, animalia irudiari eta haren izenari lotuta.

Karta txikiak: Umeek manipulatu, erabiltzeko eta jolasen bidez hitzak osatzeko.

Laburpen-karta: Kontsultarako, animalia guztien irudiak, izenak, taldeak eta dagozkien hizkiak.

Posterra: Animalia guztien bilduma, dagozkien hizkiekin aldamenean.

Bideoak eta webgunea: Hizkien ahozotasuna lantzeko, karta bakoitzari lotutako ipuin, kanta, olerki, bertso, kontakizun, aho-korapilo, esamolde eta antzerakoen ikus-entzunezkoak webgunean eskuragarri.

Liburuxka eta jolasak: Materialaren argibideak emateaz gain, hainbat jolas proposatzen ditugu karta txikien bidez irakurketa eta idazketa lantzeko. Memoria, azkartasuna, arreta, irudimena, analisia, kooperazioa, hiztegia... garatzeko jolasak.

Egileak: Amaia Egidazu, Iñaki Sanz-Azkue, Lore Erriondo eta Eñaut Aiertzaguena.



Teknologiarekiko lilurak ez dezala hezkuntza itsutu

Ez ote dugun kaka-nahaste ederra eskoletan, zer den hezkuntza digitalizatzea, ikasleak gai baten bueltan Interneten bilatzen jartzea al den bidea, zer ari garen galtzen teknologia bitartekari den ikas-prozesuetan, adimen artifizialak nola eragiten duen, eskolan teknologia digitala erabiltzea zein adinetik aurrera den komenigarria, zertarako eta nola...

Pablo Garaizar eta Diana Franco adituen klase magistrala jaso dugu: "Teknologiarik gabeko espazioak beharrezkoak dira eskolan".

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  PELLO MAUDO HERRERO

Internetek informazio andana klik bakarrera jarri zuenetik, dogma berria hauspotu zuten pedagogia ugariak: edukiak buruz ikastea jada ez da baliagarria. "Memoria da zerbaiten inguruan pentsatu ostean, zerbait landu ostean, geratzen den arrastoa, eta funtsean, memoria da ikasketa mantentzeko dugun bakarra, beraz, memoria gutxien bada, zerk sostengatuko du ikasketa? Esaten da gaur egun dena bilatu daitekeela, baina liburutegira baldin bazoaz, harrerako langileak galdetuko dizu zer behar duzun zehazki, eta gaiaz ezertxo ere ez badakizu, zer galdetu ere ez dakizu; halaxe pasatzen da hainbatetan klasean: ikasleek ez dute galderarik, ez dute zalantzarik, zer galdetu ere ez dakitelako, ez badute horren inguruko oinarrizko ezagutza nahikorik galderak eta zalantzak sortzeko", dio Pablo Garaizar irakasle eta teknologian adituak.

"Irakasleok ezin dugu pentsatu emaitza hobek jasotzen ditugulako teknologiak ikasketa hobetzen duenik; arazoa da emaitza bakarrik begiratzea, eta ez prozesua; ebaluatzeko modua aldatu behar da"

Pablo Garaizar

Memoriaren muskulua lantzea ikasketaren muskulua lantzea dela nabarmendu du. "Ikasketa aktiboaren bueltako metodologia berri hauek guztiak dikotomia planteatzen dute ikasketa

memoristikoarekiko, baina biak dira beharrezkoak, ikasketak ezin baitu izan testuingururik gabeko memorizazio hutsa eta ezin du izan zimendu eta oinarri izango diren ezagutzarik gabeko ikasketa aktibo hutsa. Pandemian ikusi genuen ezagutzak eta jakintzak zituzten ikasleek, oinarri batzuk zituztenek, hegan egin zutela konfinamenduan auto-ikasteari heldu behar izan ziotenean, teknologia lagungarri izan zitzairen; oinarri gutxi zituztenak, aldiz, galduta ibili ziren".

Erraza da galtzea, Interneteko informazio uholdean. Baina klase batzuei erreparatuta, balirudike teknologian hezteak esan nahi duela ikasleei eskatzea gai bat aukeratu eta Googlen horren inguruko informazioa bilatu dezatela, gero eskolan aurkezteko. "Ikasleak euren kabuz ikasteko puntura heltzea laguntzen duen prozesua da hezkuntza, eta edukiak bilatzen irakastea ongi

Argazkian,
Diana Franco eta
Pablo Garaizar.



dago, baldin eta norekin kontrastatu baldin baduzu eta markoa beti zalantzan jartzen baduzu. Ulermen-marko hori eraikitzen lagundu behar du irakasleak, informazioari zentzua ematen, tokiko errealitatera ekartzen, ez baita nahikoa informazioa sarrera izatea (Internet, liburuak, apunteak...); informazio hori ebaluatu, interpretatu eta ulertu behar duzu, eta bide horretan etengabeko kontrastea funtsezkoa da irakaslearekin. Niretzat harremanean oinarritzen da hezkuntza”, dio Diana Franco Hezkuntzan Librezaleko kideak.

Garaizarren ustez ere, irakasleak filtroa izan behar du: “Hainbeste informazio dugun garaiotan, inportantea da jakitea zer den inportanteena eta zer bigarren mailako, zein ezagutza oinarritzko behar dituzun gai baten inguruan, eta horretarako gakoak eman behar ditu dakienak”. Horrez gain, “bilatu-kopiatu ariketan prozesu mentalen bat egongo dela pentsatzea ameskeria da, pentsatzea klase aurrean aurkezteko testu, irudi edo bideoen *collage* bat egiteak automatikoki esan nahi duela hori guztia ikasi duzula. Klasean batzuetan galdetzen didate arbelari argazkia atera al diezaioketen, baina argazki horrek ez dizu bermatzen ikasketa, berdin Interneteko informazio bilduman: batzuetan informazio hori ez da burmuineko filtrotik pasatzen, gutxi prozesatzen da, gutxi pentsatzen da horren inguruan, eta gutxi pentsatutako edukiek ez dute arrastorik uzten, ez dira memorian geratzen”.

Irakaslearen filtroaz ari garela, Google gisako bilatzaile handien filtro eta algoritmoak ekarri ditugu eztabaidara. Francoren hitzetan, “haurrak ginenean, entziklopediak erabiltzen genituen, ez zegoen emakume erreferenterik eta normalizatzen genuen, ez genion horri erreparatzen eta ez genuen ulertzen horrela izan ezin zitekeen ere. Gaur egun erabiltzen dugun teknologian, zer ari gara galtzen, zer geratzen da beltzguna horretan, gu konaturatu gabe, guk ulertu gabe beste era batera izan daitekeela? Hori bistartzea eta kuestionatzea inportantea da hezkuntzan, adimen artifiziala interesgarria izan daitekeelako entrenamendu jakin batzuetarako (demagun, biderketak lantzeko), baina ez mundu ikuskera gartzeko, horretarako tokiko ezagutza, kontrastea eta harremanak behar ditugu”. Arazo bat ikusten du, ordea: irakasleek ez dutela begi kritikoa teknologiarekiko, “ez dute kuestionatzen, beste arlo askotan bai egiten duten moduan”.

“Ez da nahikoa Internetera sarrera izatea, informazio hori interpretatu eta ulertu behar duzu, irakaslearekin etengabeko kontrastea funtsezkoa da; harremanetan oinarritzen da hezkuntza”

Diana Franco

Izan ere, Garaizarren arabera, “algoritmoak edo makinak esan badu, pentsatzen dugu ongi dagoela; pertsonak kuestionatzen ditugu, makinak zalan-tzan jartzea gehiago kostatzen zaigu. Algoritmoaren atzean teknologia pila bat dagoela sinetsita gaude eta beraz, ezagutza pila bat duela, orakuluaren parekoa dela, eta ez da hala. Adimen artifizialak ia inoiz ez dizu esango ez dakienik, dakienarekin erantzungo dizu, eta batzuetan informazio gutxiarekin salto handia ematen du erantzunean. Garbi izan behar dugu multinazionalen eskutik hezkuntza arlora iritsi den teknologia horren guztiaren helburua ez dela zuk hezkuntza hobea izatea, beren etekinak maximizatzea baizik: ezagutzaburibiletan sar gaitzake algoritmoak, beharbada ez zaiolako interesatzen gu burbuila horretatik ateratzea bestelako ikuspuntuak ezagutzera, dagoeneko kateatuta gauzka eta datu mordoa ematen ari gatzazkio, gorpil horretan nahi gaitu. Nire seme-alaben ikastetxeetan Google baino ez dute erabiltzen, eta beraz Googlek duen hezkuntza ikuspegia txertatu dute, gutzit partziala”.

Irakasle bati sare sozialetan irakurri diogu berriki, jasotzen ari diren formakuntza digitalean gomendatu zaiela ikasleekin feedbacka (iruzkinak, oharrrak, elkartrukea...) egin dezaketela horretarako diseinatuta dauden plataforma digitalen bidez: “Hezkuntza humanista hiltzen ari gara”, dio irakasleak. Diana Francok kontatu du bera egon den enpresa batean intranet bat zutela, langileen dedikazioa kontrolatu eta proiektuak ebaluatzeko, eta informa-

zio eta ezagutza asko eta asko galtzen dela bidean: “Oso eredu ekonomizista da eta hezkuntzan antzeko arriskua dago”. Teknologia bitartekari den solasaldietan informazio asko galtzen dela berretsi du Pablo Garaizarrek: “Zenbatetan ez ote garen haserretu whatsapppe, gaizki ulertutako edo beste tonu batean harra-patutako zerbaitengatik”.

ETA BAT-BATEAN, ADIMEN ARTIFIZIALA

Entziklopedia izan dugu, Google izan dugu, eta orain ChatGPT dugu, dio Diana Francok, eta kontatu du irakasle lagun batek esan diola bere klaseko ikasle guztiek erabiltzen dutela ChatGPT, baina irakaslea saiatzen dela ikasgelan bestelako dinamika bultzatzen, liburuetara jo eta komentatzen, galderak planteatzen... Tresna bat gehiago dela adimen artifiziala. Hainbat maisu-maistrari buruhauste dezente sortzen dizkio, ordea, ikasleek egiten dituzten lanak eurek eginak ala adimen artifizialak eginak diren jakin nahiak. Pablo Garaizarrek hainbat gako eman dizkigu: “Teknologia bitarteko duen ikasketa askok sortzen du ikasi izanaren ilusioa edo irudipena; oso aurkezpen potentia prestatu duzunean, iruditzen zaizu asko ikasten ari zarela, baina agian hiru hilabetera ez duzu edukia gogoratuko, animazioa egitea zenbat kostatu zitzaizun baizik. ChatGPTrekin antzera da: azken emaitza oso potentia da, eskuz eginda baino potenteagoa, baina ia dena makinak egin du. Alegia, emaitza hobeak lor daitezke, baina prozesuan galerak izaten ari gara, entrenatu gabe nekez hobetzen baita, eta irakasleok ezin dugu pentsatu emaitza hobeak jasotzen ditugulako teknologiak ikasketa hobetzen duenik; arazoa da emaitza bakarrik begiratzea, eta ez prozesua; ebaluatzeko modua aldatu behar da”. Nola ebaluatu adimen artifizialaren aroan? “Ebaluazio *offline* batean, azterketa klasiko batean, ChatGPT gutzit saihestu daiteke, baina hiruhilekoan zehar lanen bidez ebaluatu nahi denean, ezinezkoa da bermatzea ez dela adimen artifiziala erabiliko, eguneroko jarraipen handiagoa behar luke, adibidez susmagarria da ikasle batek bat-batean sekulako salto eman badu egun batetik bestera. Horrek, ordea, irakasleak polizia bilakatzen gaitu eta horregatik bi joera nagusitu dira: jarraipen hori oso zorrotz egiten duten irakasleak eta paso egiten dutenak, betiko moduan ebaluatzen segitzen dutenak”.

DIGITALIZAZIOA: NORABIDEA BIRPENTSATZEN

Hezkuntzaren digitalizazioa estrategiako omen da, denon ahotan dago gainera, baina denok ez dugu berdin ulertzen zer den eskola digitalizatzea, “bakoitzak ulertzen duelako aurretik zekienetik abiatuta”, eta ikuspegi primario batetik, fokua tresnetan jartzen da, baina tresnak etengabe ari dira aldatzen, eta digitalizazioa hala ulertzea da pentsatzea marrazten ikasten dela margo pila bat eta onenak erosita. “Ikastetxeetan halako beldur bat sortzen da, askok uste duelako sartu behar direla software eta tableta pila bat, eta alboratu behar dela digitala ez den guztia; liburuak kendu eta power pointak egiten hasten dira, eta hori ez da digitalizatzea, hori da analogikoa erreproduzitzea –azaldu du Garaizarrek-. Aipatu dugu heldulekurik eman gabe ikasleei gai bat hartzeko eta informazioa bilatzeko eskatuta galduta daudela, bada, berdin irakasleak: gidatuko duen jendea falta da, teknologiari beldurrik ez diona, funtsezkoa eta bigarren mailakoa zer den esplikatuko diena”.

“Teknologia bitarteko duen ikasketa askok sortzen du ikasi izanaren ilusioa edo irudipena; oso aurkezpen potentea prestatu duzunean, iruditzen zaizu asko ikasten ari zarela, baina ez du zertan”

Pablo Garaizar

Eskoletan, momentuz, digitalizazioaz hitz egiten dutenean batez ere ofimatika egiten dutela dio Francok, tresna nola erabili ikasten dutela: saga mugitzen, teklatuan idazten, loturetan sartzen... “baina teknologia bera ulertu gabe eta

digitalizazioaren ondorioak ulertu gabe. Eskolan esplorazio eta sorkuntza gehiagoren falta nabari dut, teknologia ezberdinekin proiektu analogiko eta digitalak nahastea, betiko eskulanak baina osagai gehiagorekin”. Azken finean, tresnak gero eta errazagoak dira erabiltzaileentzat eta edozein momentutan ikas daiteke erabiltzen; eskolan heziketa digitala horretan oinarritzeari ez dio zentzurik ikusten Francok.

Digitalizazioaren lasterketak, ordea, ez du etenik, eta ikasgelak Chromebook-ek eta gailu digitalez bete zaizkigu. Horren aurrean, Suediako kasua ezaguna da: digitalizazio plana gelditu eta testu-liburutan inbertitu dute. Frantziako Estatuan, Coline mugimenduak pausatze-ko eta eskoletako digitalizazio prozesua birpentsatzeko eskatu dio gobernuari. “Badago ikuspegi bat, eskuindar kutsukoa, esaten duena behar dela ahalegin gehiago, lanordu gehiago, eguneroko diktaketara bueltatzea, berriro ere biderketa eta zatiketa pila bat egitera... lehen dena askoz hobe zelakoan, datuek kontrakoa dioten arren (kontua da



Konpententzia digital nahikoa badugu datuen iturrietara joan eta galdera egokiak eginez ondorio jakin batzuetara iristeko, espiritu kritikoa garatu dezakegu.

elite intelektualaren burbuilan bizi zirela hori diotenak). Ez nago ados –dio Garaizarrek–. Baina mezu tekno-optimistarekin ere ez dut bat egiten, teknologiak hobeak egin gaituela dioen mezuarekin: teknologia ez dago zuri mesede egiteko, dago jende jakin bat aberasteko”. Balantza horretan, ohar interesgarria egin du Garaizarrek: ikasteko oraintxe dugun baliabide preziatuena arreta da, kontzentrazioa, “eta ikerketek garbi uzten dute teknologia digitala ikasgelan sartzea arreta mantentzeko faktore apurtzailea dela. Mugikorrek eskolan bai ala ez eztabaida ematen ari den uneotan, badakigu ikasgelan dagoen mugikor bakoitzeko 20-25 mikro-eten inguru egon daitezkeela ordubeteko klasean, 15-20 mugikor badaude, 400-500 eten, norbaiten mugikorrek dar-dar egiten duenean gainerakoan arreta ere desbideratzen duelako, eta iritsi zaiona argazki dibertigarri bat bada eta ondokoei erakusten badie... pentsa”.

Ez ordenagailu eta ez mugikorrik, unibertsitate klaseetan artikuluan kontatu genuenez, apunteak eskuz hartzen hasi ziren unibertsitateko ikasleak, eta arreta eta kontzentrazio handiagoa izan zen emaitza. “Seme-alaben eskoletan Chromebook-ik ez sartzeko borrokatu nuen, badakidalako zer gertatuko den: nire klaseetan ordenagailu eramangarria darabilte ikasleak, eta apur bat aspertzen badira Youtuben edo bideo-jokoetan hasten dira, guk jarritako filtroak-eta gainditzten ikasten dutelako. Irakaslearentzat, ikaslearen arreta eta interesa lortzea askoz zailagoa da, lehiatu behar duzunean entretenimendurako diseinatuta dagoen erreminta batekin”, aitortu du Garaizarrek.

Aldiz, Coline mugimenduaren arabera, gurasoen %76k uste du teknologia digitalean haurra zenbat eta lehenago murgildu, orduan eta hobeto moldatuko dela, eskolatik kanpo teknologia eguneroko ogia dela aintzat hartuta. “Niretzat, eskolak burbuila izan behar du gizartean, gauzak egiten ikasi behar dugulako. Urpekaritza egiten ikasteko ez zaituzte zuzenean itsasoan sartzen, igerilekuan hasiko zara pixkanaka, bada, berdin. Hezkuntzan oso azkar hasten dira gailu teknologikoekin, pentsatuz zenbat eta lehenago hasi orduan eta errazago garatuko dituztela erremintak errealitate horri aurre egiteko, eta ez da hala, ez diegu zabor-jana txikitatik ematen hobeto jaten ikas dezaten. Berdin teknologiarekin, eskoletan ezin da

“Haurrak ginenean entziklopediak erabiltzen genituen, ez zegoen emakume erreferenterik eta normaltzat genuen. Gaur egun erabiltzen dugun teknologian, zer ari gara galtzen, zer geratzen da beltzguna horretan, gu konturatu gabe?”

Diana Franco

“Ikasteko oraintxe dugun baliabide preziatuena arreta da, kontzentrazioa, eta ikerketek garbi uzten dute teknologia digitala ikasgelan sartzea arreta mantentzeko faktore apurtzailea dela”

Pablo Garaizar

jarri gidatu gabeko teknologia pultsioak dituen gazte baten esku”. Eta aldarrikapena egin du Garaizarrek: teknologiarik gabeko espazioak behar ditu eskolak.

ORDUAN, TEKNOLOGIA NOIZ, NOLA, ZERTARAKO?

Zein mailatan hasi teknologia digitala erabiltzen? “Zenbat eta beranduago, hobeto”, borobildu du Garaizarrek. Teknologiak batzuen eta besteen artean sortzen duen arrakala ahaztu gabe, solaskideen ustez Haur Hezkuntzan ez litzateke teknologia digitala erabili behar, mundu fisikoa ikasten ari direlako, eta ez dago digitalizatzeko beharrik. Aldiz, Francok kontatu du Haur Hezkuntzako umeei ipuinak pantailan jartzen dizkie-

tela hainbat ikasgelatan, “bideo oso politak, ongi grabatuak, ipuin kontalari oso onekin... baina harremana, kontalaria bertan egotea, esperientzia sozial hori elkarrekin bizitzea... galtzen da”. Abstrakzioaren eta ideien mundura salto egin aurretik, hau da, abstrakzio kapa bat den digitalizaziora salto egin aurretik, konkretua landu behar da, eta jautzia egiteko unea Lehen Hezkuntzako azken zikloan edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza hasieran jarri du Garaizarrek. Aurretik, Lehen Hezkuntzako 3. mailan adibidez, pasa ohi gara irakurtzen ikastetik irakurritakoaren bidez ikastera, “eta haur asko hor geratzen da; ez badu oraindik ongi irakurtzen ikasi, ezingo du irakurritako horren bidez beste zerbait ikasi”, eta halako etapa inportantean aldagai teknologikoa sartzea okerrerako izan daitezkeela dio adituak.

Teknologia noiz sartu adosteko beste gako bat: “Sarri, teknologiak asko igotzen du azken produktuaren maila. Etxean egiteko eskulana eskatu eta gurasoek lagundu dioten ikaslearen ondoan, bere kabuz egin duenaren emaitza kaskarragoa ageri ohi da, baina agian bera da gaitasun handiena duena. Digitalizazioa tartean sartzen denean, antzera gertatzen da: lanak makillatzen artista da teknologia, eta horregatik, alderdi bisualak garrantzi gutxiago duenean sartzen has gaitzake teknologia digitala eskoletan (DBH, Batxilerra...), zeren aurkezpen oso polita egin diezadakete, baina mamirik ez badu, eduki aldetik pobrea bada, ez nau engainatuko”, dio Garaizarrek.

Eredu teknologiko on horien arriskua da, bestalde, norbere kabuz egitera gutxiago animatu gaitzkeela, halako maila lortuko ez dugula jakitun. Horren harira, porrotaren hezkuntza zein garrantzitsua den nabarmendu du Francok, “ez dagoelako baimenduta txarto egitea, eta hain justu eskola baliatu behar litzateke horretarako, erori arren sarea ematen dizulako edo eman behar lizukeelako eskolak”.

Azterketek diote hobeto irakurtzen dugula paperean, pantailan baino; matematikako ariketak ere hobeto egiten direla paperean, hobeto garatzen dela pentsamendu abstraktua, *Teknologia pixka bat baliatzea ona da hezkuntzan, baina asko baliatzeak ez du laguntzen artikuluan* genioenez. Baina positiboan bukatu nahi dugu, eta teknologia digitala hezkuntzan erabiltzeko eredu onak eskatu dizkiegu mahaikideei. Javi



CIBERESPIRAL.ORG

Haur Hezkuntzako umeei ipuinak pantailan jartzen dizkiete hainbat ikasgelatan, “bideo oso politak, ongi grabatuak, ipuin kontalari oso onekin... baina harremana, kontalaria bertan egotea, esperientzia sozial hori elkarrekin bizitzea... galtzen da”.

Luengo DBHko Teknologia irakasleak martxan jarri duen teknologia laborategi irekia aipatu digu Francok: ikasgai ezberdinetako irakasleekin proiektuak egiten dituzte bertan, teknologia, esperimentazioa eta harremanak tarteko. Teknologia bera lardaskatzea, saltseaztea, programatzea... ongi ikusten dute biek. Eta Garaizarrek gomendatu du galderak egiteko baliatzea teknologia: “Digitalizaturiko informazioak aukera ematen du informazio-iturri horrekin interaktuatzeko eta horren gainean

galderak planteatzeko. Zenbateraino da ona jaso dudan erantzun hau eta zein beste galdera egin ditzaket? Uste dut irakasleak gero eta gehiago izan behar duela galdera sortzaile, edo hezi behar dituela beren buruari galderak sorraraziko dizkioten pertsonak. Migrazioaren gainean aurreiritzi asko dago, bada goazen makinari migrazioaren inguruko datu errealak eskatzera eta galderak egitera; zein motatako datuak eskatuko ditugu, zein bereiziko ditugu eta nola, zein galdera egingo di-

tugu? Konpententzia digital nahikoa baldin badugu datuen iturrietara joan eta galdera egokiak eginez ondorio jakin batzuetara iristeko, espirtu kritikoa garatu dezakegu. Eta aldi berean, berriz diot, kritikotasuna garatzeko memoria eta ezagutza ezinbestekoak dira: hezkuntza sistemak ez badigu ematen nahikoa oinarri memorian gordeta izango duguna, inoiz ez gara izango herritar kritikoak. Gu kritikoak gara teknologiarekin, gaia kontrolatzen dugulako”. ●

Jarraitu Korrika zuzenean Hamaika telebistan

www.hamaika.eus/23korrika




hamaika



Deskargatu
zure kilometroa

Bideoa bidaliko dizugu
prest dagoenean!



TOBILLAS HERRIKO SERNA

1.300 urtez, elkarrekin lurra landu eta bizi

Gaubea haranean, Tobillas herriaren alboan, Serna deitzen dioten nekazaritzarako lursail bat dago. Baina ez da baratze soil bat: historiak eta arkeologiak diote 1.300 urteko bizia duela eremu horrek. Herritarren langintza kolektibo baten emaitza izateaz gain, parada ematen du gizartean zeuden harreman konplexuak aztertzeko.

 **JOSU NARBARTE HERNANDEZ**

Gaubea harana Omecillo ibaiak zeharkatzen du, Arabako mendebaldean. Egun despopulatze larria jasaten ari den arren, Erdi Aroan dinamismo handiko eskualdea izan zen. IX. mende hasieran, Valpuestako elizbarrutia sortu zenean, hainbat herrixka eraiki ziren bertan, bakoitza bere elizaren inguruan. Horien artean zegoen Tobillas, iragan aberatsa duen herria. 2021az geroztik, EHUKo Ondare eta Paisaia Kulturalen ikerketataldea hango landa-paisaiaren historia aztertzen ari da, eta ondorioztatu ahal izan dute Tobillasko urbanizazio edo herri-sarea landa-komunitateen lan kolektiboari esker sortu zela.

ELIZAREN KONTROLA

Egun apenas entzungo dugu bere izenik albistegietan, baina Tobillas erreferentzia garrantzitsua izan da Euskal Herriko historiografian. San Roman elizaren inguruan Goi Erdi Aroko az-

tarna dokumentalak zein materialak kontserbatzen dira, eta horri esker xehetasun handiz berreraiki ahal izan da bere historia. Horretarako, badugu testu bitxi bat: Avitus izeneko abade baten IX. mendeko testamentua kontserbatzen da.

Tobillasko eliza eraiki omen zuen abadeak, eta beste hainbat ondasun ere eman zizkion. Eraikinean 939. urteko data daraman inskripzio epigrafiko bat zegoen –gaur egun Arabako Arkeologia Museoan dago irakurgai–, Bela presbiteroak agindutako berreraikuntza lanen urruneko oroigarria. Baina egungo eraikina XII. mendean berreraiki zuten arkitektura-molde erromanikoan.

Halako eraikin monumental baten eraikuntza eta mantenua ez zegoen nornahiren esku: landako elite talde baten berri ematen digu. Kontuan hartu beharra dago Goi Erdi Aroan eliza gehienak jabetza pribatukoak zirela. Funtzio erlijiosoa betetzen zuten, baina haien erai-

kuntza eta mantenua tokiko noble-familien edo monasterioen arduraren izaten zen. Horretarako, elizei mota guztietako jabetzak ematen zizkieten, eta horiek sortzen zituzten errentak bertan jasotzen ziren. Hala, elizen kontrola afera ekonomikoa eta politikoa ere bazen.

LUR BEREZI BAT: SERNA

Avitusen testamentuaren bidez jakin dezakegu Tobillasko San Roman elizako jabetzak zein ziren, eta horien artean *serna* izenekoak ziren garrantzitsuenak –hitz hori oso ohikoa da garaiko Araban eta Gaztelan, baina polisemikoa izan ohi da, eta bere esanahia ez da beti zehazten erraza–. Oro har, zerealgintzarako lurrak izendatzen dituela esan daiteke. Horietako asko, gainera, herritarrek modu kolektiboan lantzen zituzten, eta haien etekinen parte bat jaun feudal baten eskuetara joaten zen, sarri eliza pribatu bati ordaindutako errenta gisa. Beste hitz batzuetan: *serna* horien inguru-



Omecillo ibaiaren ondoko zereal-soro zabalari "serna" deitzen diote Tobillasen. Goi Erdi Arotik hasita, nekazaritzarako lur kolektibo horiek etengabe landu izan dira, goldatu eta ongarririk gehituta.

ruan gorpuztu zituzten harremanak lurralde haietako Goi Erdi Aroko nekazari eta jauntxoek.



Ondorengo mendeetan, dokumentuetan behin eta berriz aipatzen da izen hori Tobillas herriari lotuta. 1129an, adibidez, Gaztelako Alfontso I.ak Oñako monasterioari Tobillasko eliza dohaintzan eman zionean, *serna* bat atxikita zeukala adierazi zuen. 1283an, aldiz, Oñako abadeak errentan eman zituen Tobillasen zituen *serna*-k. Gaur egun, hitza toponimo gisa fosilizatuta gelditu da eta Omecillo ibaiaren ondoko zereal-soro zabalari horrela deitzen diote bizi-lagunek.

Eremu horrek hamaika hektarea hartzen ditu eta bere perimetro osoa uholdeen aurkako dike zabal batek mugatzen du. Lurrez eginda dago, kanpoko aldean

*Eliteek boterea galdu
eta landa eremuan bizi
zirenek protagonismoa
hartzean, kolektiboki ekin
zioten bizileku berriak
sortzeari, paisaia eraldatu
zuten, eta horrekin batera,
euren identitatea*

harrizko hormaz indartuta, eta hiru metroko altuera dauka ibaiaren mailaren gainetik. Beste aldetik, dike hori lerro-lerro landatutako zuhaitz-espezie jakin batzuekin egonkortuta dago: haltzak (*Alnus glutinosa*), intxaurrenondoak (*Juglans regia*) eta hurritzak (*Corylus avellana*). Zuhaitzen sustraiek lurrari eusten diote, eta uholdeen higaduraren aurrean babesa eskaintzen dute. Elementu horietako batzuk oso zaharrak izan litezke, eta hainbat motzondo ere ikusten dira zenbait tokitan. Hortaz, pentsa dezakegu oso aspalditik datorren landaketa estrategiko bat dela. Bestetik, Sernaren mutur batean kanal txiki bat ere badago, inguruko mendietatik datozen urak bildu eta ibairantz ateratzeko.

Lursail luzetan banaturik eta ibaia-rikiko perpendikularrean antolatuta,



ARABAKO ARKEOLOGIA MUSEOEA

Ezkerrean, Tobillas herriaren eta Sernaren aire irudia; nekazaritzarako eremua (horiz) dike zabal batek babesten du Omecillo ibaitik. Eskuinean, San Roman elizan mantendu den eta 939. urteko data daraman inskripzio epigrafikoa; egun Arabako Arkeologia Museoa dago ikusgai.

gutxienez bi mugari topa daitezke eremuaren perimetrotik dikean txertatuta. Forma horrek Europako lurralde desberdinetan ezagunak diren *open field* sistemaren antza handia du: goldea aisa pasatu ahal izateko zerrenda estu eta luzeak.

PAISAIAREN HISTORIA, LURZORUAN IDATZIA

Argi dago, beraz, Tobillasko herritarrek kolektiboki sortutako, mantendutako eta landutako nekazaritzarako lurra dela Serna. Baina noiz gertatu zen hori guztia? Zein izan zen bere garrantzia herriaren sorrera prozesuan? Galdera horiei lurzoruetan egindako zundaketekin erantzun diezaiekegu: sedimentuen propietate fisiko-kimikoak aztertuta, gizakiek zein ingurumenak eragindako prozesuak berreraiki daitezke eta erradiokarbono bidez datatu.

Sernan 70 zentimetroko sakoneran kolore beltzeko sedimentuak agertzen zaizkigu, organikoki aberatsak. Zer esan nahi du horrek? Omecillo inguruko paisaia ez da beti horrelakoa izan. Holozenoaren hasieran, duela 10.000 urte ingurutik aurrera, giroa egun baino hezeagoa zen eta inguru hau etengabe urperatutako zingira bat zatekeen; horren lekuko dira sedimentu ilun horiek. Baina duela 5.500 urte inguru klima lehorragoa bihurtu zen, kareharriak higitzen hasi, eta ibaia arroan behera kar-

*'Serna' horien inguruan
gorpuztu zituzten
euren harremanak
Goi Erdi Aroko Tobillasko
nekazariak*

bonatoz saturatutako sedimentuak garraiatzen hasi zen. Tufa gisa prezipitatu eta antzinako zingirak betetzean harea zurixkaz osatutako lautadak eratu zituzten. Baliteke horrek herriari bere izena eman izana: tufari *toba* ere esaten zaio gaztelaniaz.

Egoera berria, noski, egokiagoa zen gizakiak bertan ibiltzeko –ikerturiko aztarnategiei esker badakigu Protohistoriatik hala izan zela–. Baina benetako aldaketa Goi Erdi Aroan etorri zen, garai horretan egin baitziren uholde-lautada nekazaritzarako erabili ahal izateko aldaketa handienak. Dikearekin eta drainatze-kanalekin, Serna uholdeen eraginetik at gelditu zen eta maila freatikoa jaitsi zen; laborantzarako lurzoru lehor emankorra geratu zitzaion sari bezala. Erradiokarbono bidezko datazioek

diote lan horiek VII. eta IX. mendeen artean egin zirela, hain justu herria sortu zen garaian. Orduetik, lurzoru horiek etengabe landu izan dira, goldatuta eta ongarririk gehituta.

IDENTITATE KOLEKTIBO BAT

Tobillas komunitate batek bere eguneroko praktikarekin sorturiko herria izan zen. Serna bezalako nekazaritzarako eremuak egokitzea eta kolektiboki lantzea zen helburua, eta horrek eman zion izaera. Eta hori guztia Goi Erdi Aroan gertatu izana ere ez da kasualitatea. Antzinate berantiarreko aldaketa sakonen ondotik, mendebaldeko Europan hiriek eta eliteek beren boterea galdu zuten eta landa eremuan bizi ziren komunitateek hartu zuten protagonismoa. Geroa segurtatzeko xedez, kolektiboki ekin zioten bizileku berriak sortzeari, paisaia eraldatu zuten, eta paisaiarekin batera, euren identitatea.

Errealitate horri gainjarri zitzaion, IX. mendetik aurrera nagusitu zen gizarte feudalarren botere-egitura berriak, Avitus abadeak nahiz Bela presbiterioak kasu honetan hain ondo irudikatzen dutena. Neurri handi batean, bi prozesu horiek –komunitateen ekintza kolektiboa eta desberdintasun sozialak areagotzeko joera– daude Tobillas zein beste herri askoren erroan, eta oraindik ere ezinbesteko osagaiak dira egungo gizartearen funtzionamendua ulertzeko. ●

MARTXOAK 8

Emakumeak borrokan, instituzioak entzungor


Martxoaren 8a egun garrantzitsua da mugimendu feministarentzat, eta azken urteetako olatuari jarraiki, aurten ere ehunka herri eta hiritako kaleak beteko dituzte emakume langileen eskubideen aldeko aldarriz. Azaroaren 30eko greba orokorraren ildotik, zaintza eskubide publiko eta kolektiboa eskatzeko eguna

izango da Hego Euskal Herrian, baina baita indarkeria matxistaren aurka egitekoa ere, besteak beste. Ipar Euskal Herrian autodefentsa eta antolaketa feminista jarri dute fokua, eta mugimendu feminista indartzeko eta artikulatzeko baliatu nahi dute eguna. Ostiral arratsan izango dira manifestazioak.

 LEIRE ARTOLA ARIN

Martxoaren 8a "ospakizuna baino gehiago borroka eta salaketa eguna da". Euskal Herriko Mugimendu Feministak argi utzi du egunaren helburua. Azken urteetan berebiziko garrantzia hartu du emakume langileen nazioarteko egunak Euskal Herrian ere, eta 2018ko greba egun jendetsutik, aldarri feministak indarrez entzun dira ehunka herri eta hiritan. Aurten ere dei egin dute kalera ateratzera, *Gure bizitzekin negoziarik ez* lelopean, emakume langileen eskubideak, zaintza publiko komunitarioa eta indarkeria matxistaren aurkako borroka aldarrikatzera, besteak beste. Mugimendu Feministaren hiriburuetakoa deialdi nagusiak hauek dira: Baionan 18:00etan Herriko Etxeko plazatik, Bilbon 19:00etan Jesusen Bihotza plazatik, Donostian 18:30ean Antiguako tuneletik, Gasteizen 18:00etan San Anton plazatik, eta Iruñean 19:00etan Antoniutti parketik. Hainbat herritan ere antolatu dituzte manifestazioak.

Azaroaren 30eko greba feminista orokorra mugarri izan zen, eta hala berretsi du Denon Bizitzak Erdigunean plataformak otsailaren 20ko prentsaurrekoan. Azpimarratu dute grebarako sortutako tokiko asanblada ugarik lanean jarraitzen



duela eta Mugimendu Feminista "gogoz eta anbizioz" dagoela: "Asanbladak aktibatu ditu, gogoak indartu ditu, sare batzuk piztu ditu", azaldu du Ainhoa Olaso plataformako kideak. Zaintza publiko eta komunitarioantz egiteko pausoak ematen jarraitzen dutela ziurtatu dute, besteak beste, tokiko dinamikak sustatzen eta Herri Akordioa zabaltzen. Olasok gogorarazi du Mugimendu Feministaren aliantzak estutzeko balio izan duela grebako lanketak, eta etxeko langileen elkarteekin, sindikatuekin, sexu langileekin zein eragile sozialetako kideekin batera, erabaki guneetan eragiteko prest daudela.

Hain zuzen, instituzioen jarrerari irakurketa negatiboa egin dio Denon Bizitzak Erdigunean plataformak: "Instituzioetatik jaso dugun erantzuna ez da behar genuena izan. Arduratuta gaudenon ahotsa ez dute kontuan hartzen, ez dute greba feminista orokor bat egin izana baloratzen".

Zaintza sistema publiko komunitarioa aldarrikatu zuten A30ean, baina

Olasok dio erakundeek ez dituztela kon-tuan hartu haien eskariak: "Ez zaie inter-resatzen haien politikagintza zalantzan jartzea ezta aldatzea ere. Argi dago zein den gure bizitzen eta kapitalaren artean egiten duten hautaketa".

EMAKUME LANGILEAK, PREKARIZATUTA

M8an instituzioak eta erakundeak inter-pelatzen segituko dute feministek, eta *Gure bizitzekin negoziarik ez* lemapean ardura hartzeko eskatuko dute: "Zori-tzarrez, ez da zaintza logika merkanti-listetan dagoen afera bakarra, bizitzeko oinarrizko behar guztiak daude merkan-tilizatuta; elikadura, etxebizitza, osasu-na... aski da!". EAEn onartutako zaintza ituna kritikatu dute, eta Jaurlaritzari leporatu diote Mugimendu Feministaren

Ipar Euskal Herrian autodefentsa feminista artikulatzera deitu dute, mugimendu feminista indartzeko

"diskurtsoaz jabetzeko saiakera". Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari mezua bidali diete, esanez ez dutela itunik nahi baldintza hauek betetzen ez baditu: pub-likazioaz eta pribatizazioaren aurka hitz egitea, baita Atzerriartasun Legea deuseztatzeaz ere, besteren artean. Exi-jitu dute itunak baldintza horiek betetze-

ko "plan eta aurrekontu zehatzak" izan behar dituela.

Sistema kapitalista heteropatriar-kalak emakumeen lan-indarra hainbat modutan esplotatzen duela gogorarazi du Euskal Herriko Mugimendu Femi-nistak: "Enpleguan, lan feminizatueta, baita dohainik eta aitortu gabe egiten ditugun zaintza lanetan ere. Horrek zuzenean prekaritatera eta etengabeko zapal-kuntza egoeran bizitzera kondenatzen gaitu". Lanaren banaketa sexuala salatu dute, eta nabarmendu dute emakumeek jasotzen dituztela pentsio baxuenak eta soldata arrakala dagoela. Urtean gizo-nek baino 7.000 euro gutxiago irabazten dituzte andreak Hego Euskal Herrian, 2020ko datuen arabera.

Ipar Euskal Herrian ere lan eta zaintza eskubideen alde altxatzera dei egin du



DANI BLANCO / ARGIA CC BY SA



EQUADOR ETXEA





ECUADOR ETXEA

Baionako Manifeministen Kolektiboak, gutun ireki baten bitartez. Bizitzaren eta lanaren arteko "egiazko balantza" izateko, baliabide "ausartak" eskatu dizkiete erakundeei, esaterako, "etxean den gurasoaren estatusa onartzea gutxieneko hezkuntza soldata baten bidez".

BORROKA FEMINISTA, ZAPALDUTAKO GUZTIEN IZENEAN

Mugimendu Feministak Martxoaren 8a baliatuko du gogorarazteko egoera bereziki zaurgarrian dauden emakumeen eskubideak; Europara migratu behar izan dutenak, eta Atzerriartetasun Legearen ondorioz indarkeria eta arrazakeria jasaten dituztenak, hala nola lan munduan edota indarkeria matxistari dagokionean. Halaber, Israel egiten ari den genozidioa salatzeke probestuko dute eguna, eta Euskal Herriatik Palestinara elkartzasuna eta maitasuna helarazteko, "gaurko egunean bereziki emakume palestinarrei".

Baionako Manifeministen Kolektiboak ere borrokara batzeko deia luzatu die "munduko emazte eta zapaldu guztiei": "Norma hausten duzuen guztiak, borroka honetan elkarrekin gaude". Ipar Euskal Herrian autodefentsa eta antolaketa feministan jarri dute fokua, mobilizazioen prestaketa lanetan aritu den Irantzu Idoatek baieztatu duenez. Martxoaren 8a indarrak batzeko abiapuntutzat hartu dute, eta manifestazio ostean eskaintza kulturala emango dute, feministen arteko harremanak sendotzeko asmoz: "Lehen pauso bat izatea espero dugu, mugimendu feminista aktibatzen hasteko maila erregularrean, eta ez soilik Martxoak 8an edo Azaroak 25ean". Idoatek aipi-

marratu du feminista ugari borrokarako "gogoz" daudela, baina jakitun direla ez dutela Hego Euskal Herriko mugimendu feministaren egonkortasunik. Halere, ostiralean manifestazio jendetsua eta zabalago espero dute, kontuan izanda Frantziako Estatuan greba eguna ere badela; intersindikalak ere bat egin du grebarekin. "Lan greba, etxeko lan greba, gorputz greba eta kontsumo greba egingen dugu", gogorarazi dute Ipar Euskal Herriko antolatzaileek.

Hainbat kolektibok hartu dute parte Baionako mobilizazioa antolatzen, ildo eta ideologia anitzetakoak, baina Idoatek azpimarratu du garrantzia eman diotela irakurketa komun bat plazaratzeari, nahiz eta "zailtasunak" eta "desberdintasunak" topatu dituzten lanketa horretan: "Denen arteko oreka bilatu da". Argitaratu duten gutun ireki hori borrokara batzeko dei argia da, eta "ahizpa eta burkideei" zuzentzen zataizkie, "elkarrekin altxatzera", autodefentsa feminista artikulatzera.

M8aren harira aldarrikapen zerrenda zabala osatu dute, besteak beste, ondorengoa eskatu dute: hezkuntza parekidea, "aukeren berdintasuna bermatzeko eta genero dikotomiarik gabeko edukiak izateko"; gorputz askatasunaren eskubidea izateko, abortu eskubidea "behar den tokian bermatzea", eta laguntza bidezko ugalketa zein antisorgailuak denentzat urrik izatea; indarkeria matxistaren eta feminizidioen egileek erantzukizuna izatea; eta sistema kapitalista neo-kolonial eta arrazista hausteko, Espainia eta Frantziako estatu zapaltzaileek migrazio lege "basatiak" baztertzeara. ●

Itaiak, estatu sozialista eraikitzen deia

Itaia emakumeen antolakunde sozialistak ere mobilizazioak iragarri ditu Martxoak 8rako: "Emakume langileen zapalkuntza amaitzeko oinarriak jarriko dituen gizarte sozialista eraikitzen deia". Itaiak ohar-tarazi du gizartea gero eta aurrerakoiagoa dela sinestarazten ari diren arren, emakume langileek zapalduta jarraitzen dutela: "Egiturazko langabezia, etxeko zaintza lanen zama, indarkeria matxista, gure gorputzen objektibizazioa...". Salatu du enpresariak emakume langileen aurka "esplotazio basatia" egiten dutela.


Gainera, jendartean ere zapalkuntza normalizatuta dagoela gogorarazi dute Itaiako kideek, eta ideia erreazionario eta matxistak zabaldu direla. Azpimarratu dute "indar politiko independentea" hautatzeko beharra dagoela, ikusita "politika instituzional kapitalistek" ez dietela erantzuten emakume langileen interesei, baizik eta boteredunen eta klase ertaineko emakumeen beharrei.

Herri hauten izango dira mobilizazioak: Araban, Gasteizen; Bizkaian, Bilbo, Portugalete, Basauri, Gernika eta Durangon; Gipuzkoan, Mutriku, Donostia, Azpeitia, Azkoitia, Zestoa, Bergara, Irun, Zarautz, Tolosa, Hernani, Urnieta eta Beasain; Nafarroan, Lizarra, Gares, Altsasu, Lakuntza eta Iruñean, eta Ipar Euskal Herrian, Baionan.

itaiak

“Ederrena izanen zen okupa motorizatu guztiak desagerraraztea”

Behar ez den lekuan autoa aparkatzen duten gidariak salatzen hasi zen Juan Larreta (Iruñea, 1968) duela bost urte. Esklerosi anizkoitza duenez, desgaituak diren pertsonentzako aparkalekuetan autoa uzteko txartela dagokio. Urteak daramatza Nafarroako txartelen erregistro bakarra lortu eta jendea sentsibilizatu nahian. Helburuak lortuta, jarduna uztea eta atsedean hartzea erabaki du.

 OLAIA L. GARAIALDE  ZOE MARTIKORENA



Juan Larreta

OHARRA: ‘Gorputz hotsak’ sail berria sortu du ARGIAk, gorputz anitzen bi- zipenak jasotzeko. Gaurtik aurrera bi astetik behin.

Distantzi laburrak direnean, hau da, 200 metro baino gutxiago, makilekin ibiltzen da. Luzeagoak diren distantzietan aldiz, aulki gurpilduna erabiltzen du. Esklerosi anizkoitza dauka Juan Larretak: “Beti utzi behar dut autoa gertu, asko kostatzen zaidalako toki batetik bestera ibiltzea”. Horregatik, desgaituak diren pertsonentzako aparkalekuetan autoa uzteko txartela dauka. Bost urte daramatza sare sozialen bidez (@Okupasmotoriza2 X sarean) autoa behar ez den tokian aparkatzen duten autoen argazkiak zabalitzen.

Aurten, jarduna etetea erabaki du helburua bete duelako eta atsedena behar duelako: “Goizetik gauera egoten nintzen argazkiak publikatzen; nire lana zen”. Bi helburu nagusi zituen kontua sortu zuenean: jendea sentsibilizatzea

eta txartelentzako erregistro bakarra izatea Nafarroan. Bi xedeak bete ditu: “Polita da lortutakoa, baina ederrena izanen zen okupa motorizatu guztiak desagerraraztea”.

2019ko urtarrilean hasi zen gidariak salatzen behar ez den lekuan autoa aparkatzeagatik edo txartelaren erabilera desegokia egiteagatik. Bost urte igaro diren arren, “oso ongi” gogoratzen du lehen argazkia: “Supermerkatuan gaizki aparkatuta zegoen guardia zibilaren auto baten argazkia bidali zidan lagun batek”. Urteekin jakin du “larrialdi bat” dagoenean poliziak horrelako aparkalekuak erabili ditzakeela: “Ez dugu inoiz jakingo benetan larrialdi bat zen edo ez”.

BOST URTETAN, 10.000 ARGAZKI

Argazkia argitaratu zuenean ez zuen espero “horrenbesteko” oihartzuna: “Oso modu inozoan eta inongo espektatibarik gabe hasi nintzen. Ez nekien argazki bakarrek kontua izanen zen edo gehiago zabalduko nituen”. Orduetik, Nafarroan, 10.000 argazki baino gehiago publika-

“Txartela izatea pribilegio bat dela uste dute, baina behar bat da”

tu dituzte: “Lotsagarria da, eta agerian uzten du jendearen sentsibilitaterik eza”. Karrikan ateratzen dituen argazkiak ez dira propio bilatutakoak, baizik eta jendeak aurkitzen dituenak: “Pentsa zenbat izanen genituzkeen bilatzera aterako bagina”. Ez du bakarrik lan egiten, 500 kolaboratzailez inguratuta bizi da.

Sinestezina iruditzen zaio jendeak horrela erabiltzea autoa aparkatzeko lekuak: “Nik ez nuen espero hainbeste jende izatea; ez dut ulertzen nola kentzen diguten gure eskubidea”.

Horrelako lekuetan aparkatzen duten edo txartela gaizki erabiltzen duten zenbait pertsonak, uste dute “minutu batzuegatik” ez dela deus gertatzen: “Pribilegio bat dela uste dute, baina behar bat da”.



TXARTELEN ERREGISTRO BAKARRA NAFARROAN

Beste helburuetako bat zen aparkatzeko txartelen erregistro bakarra lortzea. Zorionez, 2022. urtearen amaieran lortu zuten helburua. Ordura arte, udalek kudeatzen zituzten txartelak, eta Nafarroako 272 herrietan banatzen zituzten. Udal bakoitzak neurri eta araudi propioa zeukan. Horren ondorioz, "zaila" zen txartelen erregistro "egokia" egitea, eta jendeak txartelaren erabilerara "txarra" egiten zuten: "Batzuek erabiltzen dute hildako batena, edo txartela behar duen pertsonak ez duenean autoa erabiliko". Txartela soilik erabili daiteke behar duen pertsona autoan joango bada.

Orain aldiz, erregistro bakarra dagoenez, txartela berritu behar izan dute jabeek; hortaz, hilda dauden pertsonen eta iraungita dauden txartelak dagoeneko ez dute balio. Txartela behar ez den bezala erabiltzeak "enpatia falta" adierazten due-

la salatu du: "Nire emazteari ez zaio okurrizten ni ez nagoenean txartela erabiltzea, eta txartela behar ez nuenean ez nuen erabiltzen aitarena".

BESTE ETAPA BAT

Lana utzi zuenetik ez duenez atsendenik hartu, deskantsatzeko beharra sentitzen du Larretak. Hala ere, "sutan" jartzen duen beste eskubide urraketa bat salatu du: "Oraindik ezin gara leku batzuetara sartu edo bide batzuk hartu koskak edota eskailera-mailak daudelako". Legearen arabera negozio berri bat irekitzean koska kentzera edo sarrera irisgarri egitera behartuta daude jabeak, baina negozio berriak aurrekoaren jarduna jarraitzen badu, ez dago legez aldatzera behartuta: "Ezin dugu onartu; duela urte batzuk jende asko etxean isolatuta geratzen zen hiriak eta herriak ez zirelako irisgarriak". Ez du baztertzeko aurrerago salatzea, baina momentuz atsedena hartuko du. ●

GORPUTZEKO ATAL BAT?

"Bi etortzen zaizkit burura. Alde batetik, bihotza, maitasunaren eta eskuzabaltasunaren sinonimoa delako. Oso eskertuta nago jendearen elkartasunarengatik. Bestetik, besoak. Gaixotasuna diagnostikatu baino lehen, oso garrantzitsuak ziren niretzat, eskubaloiko atezaina nintzelako. Orain, oso garrantzitsuak iruditzen zaizkit besarkadak emateko".



BULTZATU DEN ELIKADURA POLITIKAREN ONDORIOAK:

NEKAZARIAK KALEETAN ETA GURASOAK HAURREKIN PLAZETAN PROTESTAN



**AINTZIRA OÑEDERRA ETA
GOIURI ALBERDI**
ASUNEK

Nekazariak protestan ari dira, baina eredu agroindustrialak hartu du lidergoa. "Itun Berdea" ere, Europar Batasunaren hurrengo hamarkadako estrategia nagusia zena, pikutara bota dezakete, begirik kliskatu gabe. Bitartean, euskal eskoletan zorriak eta harrak zerbitzatzen dira. Hemen ere, begiak kliskatu gabe, Eusko Jaurlaritzak bere eskumenak erabiltzen jarraitzen du catering-eredu ez-iraunkor baten alde.

Nekazariak kalera atera dira, eta ikusi besterik ez dago zer nolako traktoreak dituzten, euren lursailak irudikatu eta laborantza eredu industrialean murgiltzeko: tokikoa, bertakoa eta 0km, baina nekazal eredu globalizatuaren parte. Europan ere beldurtu dira erakustaldiarekin eta Ursula von der Leyen egun batetik bestera atera da pestiziden erabilera %50 murrizteko plana erretiratuko duela esanez. Eusko Jarlaritzak ere, ingurumeneko politikak nekazaritzako jarduerarekin "harmonizatzeko" konpromisoa hartu du.

Aldi berean, kalera atera diren nekazariarekin harreman zuzena duen beste berririk ere iritsi zaigu egunotan: landare zorriak eta harrak agertu dira zenbait eskola jantokitako plateretan, "janari hondatua" eskaini zaie haurrei bazkaltzeko. Eta berriro ere, ahalik eta etekin ekonomiko handiena bilatzen duen elikadura eredu globalizatuari erreferentzia egiten dion egoera. Ikusi besterik ez dago jantokien kudeaketarako esleitzen diren kontratuek duten dimentsio ekonomikoa, eta pleguetan prezioaren irizpideak hartzen duen garrantzia, catering enpresa gero eta handiagoek soilik eskaini dezaketelako zerbitzua.

Ezarri asmo den eredu ekonomikoaren inguruko erabakia hartuta dago, eta



LANGILE IKASTOLAKO GURASOAK

laborari ekologikoen lan baldintza duinak, eta haurrek egunerokoan jaten dituzten elikagaien osasun-egoera, ez dira oinarrizko baldintza gisa hartzen. EAeko Hezkuntza Sailak "kudeaketa zuzenaren" bidea soilik jorratzen du, jangela kolektiboetako elikagaien erosketa publikoa enpresen lizitazio bidez esleitzen. Modu horretan, Serunion catering enpresak egunotan galdu dituen 17 eskola jangelen kudeaketa, zerbitzu bera ematen duen beste enpresa batzuen eskuetan geratu da, eta Serunion enpresa berriz, Urdu-lizko ospitalea kudeatzera pasako da.

Ez da izango beste eredu batzuen aldeko apustua egiteko gaitasunik ez dugulako, 1992ko estatu mailako legeak bost eredu proposatzen ditu, eta autonomia erkidego bakoitzaren esku uzten du erabakia. Bada inguruan bestelako eredu des-zentralizatuak aplikatu dituenik: Na-

farroako Gobernuak dekretu berria lantzen dabil, eskolen "autonomia" ardatz hartuta eta Hezkuntza Sailak "itunak" hitzartu ahal izango ditu eskola jangelen ardura beren gain hartu nahi duten tokiko erakundeekin. Gure Platera Gure Aukera aspaldidanik ari da antzeko kudeaketa ereduak EAera ekartzeko ahaleginean.

Beraz, zinez espero dugu eskoletako haur kopurua murrizten ari den heinean, eskola jangelak catering enpresa handientzat errentagarriak izateari utzi beharrik ez izatea, behingoz erosketa publikoan oinarritzen diren jangelen inguruko erabakimena eskola kontseiluen eskuetan kokatzeko. Zer esanik ez zahar egoitza eta ospitaleetako erosketa publikoari dagokionean, horiek baitira catering enpresa nagusiek modu gero eta estrategikoagoan konkistatuko dituzten negozio zelaiak. ●

A ZE FAUNA!

VALHALLAREN BILA



ENEKO BACHILLER OTAMENDI
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDEA

Gainetik dabilzan harra-
pariengandik ihes egite-
ko bizkaralde iluna dut,
itsasoaren uretan ezku-
tatzeko. Bertako orban kolore-
tsuek nire sardako kideen artean
nahasteko balio dute (zebren
modura). Nire sabelaldea, ordea,
zurixka da, azpitik ikusten nau-
tenek eguzkiaren argiarekin ni
atzemateko zailtasunak izan di-
tzaten. Bikingo bat naiz, eta odo-
lean daramat lurralde berriak
ezagutzeko grina. Ederra bezain
gogorra izanagatik ere, nire fa-
miliarena ez da bikiingoan ohiko
beste istorio soil bat...

Kantauri itsasoaren erdian,
hor nonbait, jaio nintzen arbaso
zaharren etxean; udaberria au-
rrean, negu gorria atzean... Urte
hartan amak ni bezalako bes-
te 450.000 anai-arreba inguru
errun zituen. Arrautza barruan
ur-azalean jitoan astebete iga-
ro eta berehala eman genituen
lehen igeriketa-buztandak,
larba bihurtuta. Askok ginen, bai,
baina asko ziren gainean genituen
begiak ere. Arrain, marrazo, balea
eta itsas-hegaztiekin betidanik
maitatu gaituzte, batez ere haien
sabel barruan amaitzeko. Hori
omen da, bizitzaren ondorengo
onenera, hots, *Valhalla*-ra iriste-
ko lehen modua. Nire anai-arreben
gehiengoak garai hartan lortuko
zuen bertara heltzea, ez baitut
sekula haietako bakar bat eza-
gutu.

Bizkaiko Golkotik harago, irlandar
eta eskoziar lehengusuak ditut,
Itsaso Zeltan jaioak. Batzuetan
gure taldea joaten gara bertara;
bestetan, haiek datoz hegoaldera.
Hala, gure komunitatea Ozeano
Atlantikoan zehar zabaldu da.
Laster, bi urte betetzean, jada heldu-



ENEKO BACHILLER OTAMENDI

tasuna lortu eta gorputza migrazio lu-
zeetarako prest izango dut: indartsua,
trinkoa, eta azkarra, bikiingoan itsason-
tziak bezala. Kantauriar, irlandar nahiz
eskoziar, gehienak Norvegiako Itsasora
joango gara urtero, udako elikadura-mi-
grazioan. Indartsuenen artean egonez
gero, beharbada urrunago helduko naiz:
Svalbard hegoalderaino, edo Islandiako
hegoaldea zeharkatu eta Groenlandiako
kostaldeak ezagutzeko parada izango
dut. Itsaso horiek guztiek eskaintzen di-
tuzten otorduek halako erronka merezi
omen dute. Ia gaurik ez dagoen sasoi
eta inguru haietan, zooplankton ugari
metatzen da. Baina hainbeste argiren
artean, bada alde ilunik ere... 6 gradu-
tik gorako uretan mantendu beharko
garenez, ur-azalean, sarda handietan,

BERDELA

Scomber scombrus

TALDEA: Ornoduna / Arraina.

NEURRIA: 30-40 cm.

NON BIZI DA? Ozeano
Atlantikoko ipar-ekialdean.
Euskal kostaldera otsailetik
apirilera bitarte hurbiltzen da.

ZER JATEN DU? Zooplanktona
(bereziki kopepodoak eta
krill-a), eta aukerarik izatekotan,
arrain txikiagoren bat.

BABES MAILA: Ez dago
babestuta.

pilatuko gara, 40 metro baino sakonera
handiagotan ura hotzegi baitago. Eta
bilkura hau izaten da ezpalarten (orka)
festarik gogokoena. Haiek agertzeko-
tan, bi aukera baino ez ditugu izango:
Valhalla, ala igeriketa eta zortea.

Patuak patu, udaren ostein Itsaso
Zeltara edo Bizkaiko Golkora indar-
tsu eta koipetsu itzultzea da beneta-
ko erronka, udaberrirako belaunaldi
berriak sortzeko. Eta hori urtero eta
denbora luzez egin ahal izatea. Garai
batean aiton-amona asko ziren 15-18
urte eta 60 zentimetro inguruak; zen-
bat bidaia eta balentria haien bizitzetan!
Azken hamarkadetan ordea, Odin jain-
koaren esku egotetik urrun aurkitzen
gara. Harraparien zerrendan azkena
gehitu denak ez digu nahikoa zahartzen
uzten eta gutxi dira 10 urtetik gorako
aiton-amonak. Udaberrian sasoi labur-
ra omen da gu harrapatzekoa, baina
orduan desagertzen den ama bakoi-
tzarekin milaka arrautza galtzen dira.
Are gehiago, jada nonahi eta noiznahi
dugu haren sareetan erortzeko aukera.
Asko gara, eta indartsuak (harro herri!),
baina ezer ez da betiko, are gutxiago
zaintzen ez bada. Non geratu ote da Joxe
Migelen batela? ●

LANDAREEN EROTIKA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Zer da baratzea baino erotikoagorik? Nik ez dut ezagutzen. Mila esker, eta beste mila landareei sexualitatea asmatzeagatik. Ez dakit izango ote ginatkeenik ere haien asmakuntza hori gabe.

Sexua nola ulertzen dute landareek? Garatu ere nola garatu dute? Sexualitateak landareen aurrerabidea ekarri zuen; landare barietate berriak dira espezie baten iraupenerako bermea. Horretarako emea eta arra elkartu eta bien arteko ezaugarrien nahasketatik sortuko diren ondorengoak behar dira. Horietako batzuk bideragarriak izango dira eta espezieari geroa ekarriko diote, oparoagoa ia beti. Sexuen batura eta nahasketa hori gauzatzeko landare gehienek lorearen egitura hobetsi zuten. Hiru bide ditu: бага, lore emeak eta lore arrak bi landaretan bereizita; biga, lore emeak eta lore arrak landare berean, eta gehienek lore hermafroditak, bi sexuak biltzen dituzten loreak dituzte.

Emea eta arra elkartu eta emea emate bidean (haziak daramatzen fruitua sortze bidean) jartzeko, emea ernaldu egin behar da. Arraren polenak emearenganako bidea egin behar du eta ernaldu. Bide hori egiteko moduak bi multzo na-



JACINTA LLUCH VALERO / CC-BY-SA-2.0

Meloiaren lorea: monoikoa da, hau da, lore arrak eta emeak aparte baina landare berean ditu. Alogamoia denez, polinizazio gurutzatua burutzen du eta polinizazioa entomofiloa da, intsektuek osatzen dute.

gusitan bana ditzakegu: alogamoak eta autogamoak. Alogamoek lupugintzan ariko diren estalgile bitartekariak behar dituzte. Autogamoak bere kaxa moldatzen dira, ez dute behar ez lagunik ez laguntzailerik.

Landare alogamoak nahitaez beste baten polena jaso behar du, polinizazio gurutzatua eginez. Landareak mugitzen dira baina lan hau osatzeko behar adina ez. Ez dira animalio bezala, ernaltzeko mugitzen eta elkartzen. Landareek bitartekariak behar dituzte sexu emantartuan. Eta bitartekari, mandatari, kontaktatuak lepo lanean, polena hara-hona darabiltenen dantzan: zazpi haizeak, erlea, erlastarra, liztorra, eulia, kakalardo eta abar.

Landare autogamoak lore bakoitzean gauzatzen du polinizazioa, lorea ireki aurretik edo ondoren.

Baratzean lan egiten duena, ortuan, lorategian, sagastian, mahastian... pozik, pozaren hasperenetan sumatzen da, landarearen etorria eta emana gozatzen ditu. Landareen erotikak ba ote du eraginik poz horretan? Lorearen zetazko petaloen ukimena eta dardaizoa, usain gozo hordigarria, pistilo edo lore orratz gustagarrien eta estamine edo lorezil

tentetuen arteko gurutzamenaren artea, forma erakargarriak. Baratzea bero-bero dagoenean poztu eta kitzikatuko ez da ba baratzezaina!

Landareen ohituretan eta ugalketaren fisiologian sakontzeak eta hortik ikasitakoak aukera ederra damaigute haiek ulertzeko eta haien sexuaren ondorio diren fruitu eta haziak lantzeko.

Landareen tratuetan sar gaitzake, es-talgiletzan. Arbia garatu eta bere lore hermafroditak zabaltzeko irrika moteldu al dezakegu? Edo piperminaren sexu-grinari bultzada eman al diezaiokegu? Landareak ulertzeak, jakina, baratzezainak berak bere burua ere hobeto ulertzea dakar, ala? Arbiaren sexu trukea motelduz bere buruaren alferrik galtzea atzeratu eta probetxua luzatzen du. Pipermina berotu eta loreetako sexu festa akuilatuz, xaxatuz, pipermin aleak lehenago ekarriko ditu. Arbiak negua elikatuko digu, hotza berotuko; piperminarekin uda beroa sugartuko zaigu, izerdiak mugiarazita. Dena baratzezainaren onerako; eta mariberotuz gero jo zuhaitza edo arbola. Horien azalari larrua esaten zaio. Onena sagarrondo batekin eta apirilean, milaka lorerekin maitasuna egiten duen bitartean. ●

AZOKOOP

ARTZIBARREN LAN ETA BIZI: HURBILEKO KONTSUMORAKO DENDA ETA PROIEKTUA



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Artzibarko Urdirotz herrian, Nafarroako Pirinioetan, proiektu berri batek zabaldu ditu ateak otsailaren 24an. "Azoka-Denda" deitu diote Txabi Bados Ruizek eta Rita Perandrés Martínezek haien etxe azpian ireki duten dendatxoari. Azokoop mikrokooperatibaren adarretako bat da proiektu berria. "Artzibarko Zerbitzuen eta Ogibideen Kooperatibaren akronimoa da izen hori, eta Artzibarren bizitzeko eta lan egiteko asmoarekin jarri dugu martxan", azaldu du Perandrés. Elikadura burujabetza oinarri hartuta, eskualdeko ekoizleen eta produktu ekologikoen eskaintza egiten dute gunean.

ETXEZ ETXEKO BANAKETA ZERBITZUA AURREKARI

Herri txiki asko eta guztira 300 biztanle dituen bailaran hainbat zerbitzu eskaintzeko helburuarekin jaio zen Azokoop duela bi urte, baina hasieratik izan dira egitasmoko zutabe garrantzitsuenetakoa elikadura burujabetza eta hurbileko kontsumoa. "Denda ireki aurretik, mikrokooperatiba sortu eta lehen urtean, etxez etxe ko banaketa zerbitzua izan genuen martxan", azaldu du



kideak. Astero-astero, eskaintza orri bat pasatzen zieten bezeroei, hauek eskaera egin eta astean behin banaketa egiten zuten kooperatibako kideek. "Proiektuak ez zuen guztiz funtzionatu, ez zirelako behar adina etxe batu ekimenera".

Baina aurten Urdirotzen etxea erosi dutela baliatuta, eraikinaren behe aldea egokitu eta bertan jarri dute denda. "Desberdina da toki fisiko bat izatea: jendea hona etor daiteke erosketak egitera, ez du eskaera bost egun lehenago egin beharrik, produktuak zuzenean ikus ditzake...". Izan ere, bailarako jendearen arazoetako bat da edozein erosketa txiki egiteko kotxea hartu eta 15 minutu baino gehiago egin behar izatea.

HURBILEKO PRODUKTUAK, ARTISAUAK ETA EKOLOGIKOAK

Dendan saltzen dituzten produktuen irizpideetan, lehen bahea hurbiltasuna da: "Guk bizi garen toki berean lan egin nahi dugun bezala, aukera hori eman nahi diegu inguruko artisauei eta ekoizleei". Produktuak artisauek eta ekologikoak izateak ere badu garrantzia: "Badira eskualdean topatu ezin diren gauzak, zitrikoak adibidez. Bada, horien kasuan, ekologikoak ekartzen ditugu, eta beti ere kooperatiben edo interesgarriak deritzogun proiektuen bidez". Ahal den heinean, gainera, ontziratu gabeko produktuak eskuratzen saiatzen dira.

Mikrokooperatibako bazkideek %10 gutxiago ordaintzen dute erosketa, baina denda edonorentzat dago irekita. Barazki freskoak, jogurtak eta esnekiak, ogia, haragia, garbiketa produktuak... asteko erosketen saski osoa bete dezakete Azoka-Dendan bezeroek. Dendako eskaintzaz gain, bestelako zerbitzuak ere ematen ditu Azokoop: "Laneko erreminten eta makinariaren alokairua egiten dugu, baita hezkuntza musikalako zerbitzua ere. Pixkanaka hedatzen goaz". ●

“Bio elikagaiak jatea funtsezkoa da osasuna mantentzeko eta berreskuratzeko

—
ELENA CORRALES
Biologoa eta nutrizioan aditua
OLATZ TXIPIA

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

UNIÓN EUROPEA
European Union

**ETORKIZUNA
EKOLOGIKOA DA
aurrera goaz!**



cpaen.org
navarraecologica.org

JARDUNALDIAK



J. MARCOS / DESPLAZADOS.ORG

'Komunikazioa eta giza eskubideak. Geure burua babesteko topaketak' jardunaldietako parte-hartzaileak ondorioak gainbegirutzen.

Aita pontekoaren mehatxuak

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Ez nuke nahi zure katutxoari ezer gertatzerik..." -tonu bare eta baxuan irakurri, ahots zartatuarekin-. Lurra babestu eta defendatzen dutenak mehatxatzea edo beldurtzea klasiko samarra da. Etxean entzuna dut, adibidez, Aginagan (Gipuzkoa) egin nahi izan zuten zubiaren historia, nola proiektuaren kontra agertu ziren auzoko baserritar obrero batzuei metak erre zizkieten -1970eko hamarkadan horrek esan nahi zuenarekin-, besteren bat errio bazterrera bota zuten bizpahiru gizon handik... -irakur argia.eus-eko *Xehe* blogean 'Oreinato zubia' sarrera-. Baina, dirudenez, eraginkorra da matoien sistema, oraindik ere sarri erabiltzen den tresna baita. Hilketaren muturreraino eramaten dena munduko bazter askotan, gainera. Ordea,

nora heldu nahi dudan sarrera honekin? Arteako (Bizkaia) Basoa proiektuko etxean egin diren jardunaldi batzuetara. Eta zer ikusi duen ARGIAk honekin? Bada segi pixka bat gehiago irakurtzen.

Guatemala, meatzaritza-industriaren kutsadura, ARGIAk Paolina Albani kazetariari egindako elkarrizketa, 15.000 euroko kalte-ordain eskaera... Oroitzen? Leire Artola ARGIAko lankidea gonbidatu dute jardunaldi horietara, 2023ko ekainean Solway meatzaritza enpresa multinazionalak hedabide txiki hau mehatxatu zuela-eta, bizipena kontatzen. Nazioarteko Bake Brigadek (PBI) antolatuta, otsailaren 16 eta 17an elkartu ziren Latinoamerikako, Euskal Herriko eta Espainiako Estatuan errefuxiatutako hainbat lekutako giza eskubideen defen-

Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri deni, komunitatera!

“”

"Euskararen eta euskalduntasunaren berezitasun eta konplexutasunaz kontziente izan naiz beti. Nire identitatearen zati esentziala dira. Azkenaldian, ondare honen mantenu eta zabalkundean eragile aktibo izateko grina pizten nabaritu dut (berriz)".

Gasteiztik Uxuek

"Naziogintza sustatzeko".


Etzarri Aranaztik Juan Kruzek

"Komunikabide-proiektu aske eta iraultzaileetan sinesten dut, eta zuen proiektua sinesmen horren isla da".

Barakaldotik Yasminek

datzaileak eta komunikatzaileak, *Komunikazioa eta giza eskubideak. Geure burua babesteko topaketak* jardunaldien baitan. Kriminalizazio eta jazarpen estrategien aurrean giza eskubideen babesa eta defentsa landu dituzte hogeitaz bat lagunek eta espazioa baliatu dute eztabaidatzeko komunikabideek zaintzako eta arriskuak murrizteko prozesu kolektiboetan eta indibidualetan duten eginkizunaren inguruan. Jardunaldiak M^a Ángeles Fernández eta Jairo Marcos kazetariak (desplazados.org) antolatu dituzte eta beraiek izan dira ARGIA gonbidatu dutenak.

Solway-ren gaia ondo gogoratzen ez baduzu, irakurri argia.eus/albisteak/kazetaritza-ez-da-delitua2 albisteak. Bitartean, ARGIAk jarraituko du kazetaritza konprometitua egiten, ez baita delitua. ●



Harakin eta zirujau



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Erroma, 1215eko apirila. Laterango IV. Kontzilioan, Eliza Katolikoak apaiz eta monjeei kirurgia egitea debekatu zien, besteak beste. Aurreko kontzilioetan ere, Reimsen eta Toursen, gaia landu zuten, lekaideek soilik arimak salbatzeaz arduratu behar zutela eta gorpuen salbazioa alboratu behar zutela argudiatuta. Eta hurrengo mendean San Joan Laterangoaren basilikan hartu zen behin betiko erabakia, eta araua hausten zutenei eskumikatzeko zigorra ezarri zitzaion.

Antzinako greziarren eta erromatarren medikuntza ezagutzak IV. eta X. mende bitartean galduz joan ziren, eta oraindik gordetzen zirenak monasterioetan zeuden –Umberto Ecoren *Arrosaren izena* lanean jaso bezala–. Medikuntzaz eta, beraz, kirurgiaz gehien zekitenei jardutea debekatu zieten, haien erreleboa anatomiaz asko zekien beste gremio batek hartu zuen: harakinek.

Zehazki, Umbria eskualdeko Norcia herriko harakinek haragia mozteko trebezia berezia zuten Erromatar Inperioaren garaitik eta, kontzilioaren ondorioz, bizirik zeuden gizakien haragia mozten ere hasi ziren. Beren jatorria zela eta, *norcini* esaten zitzaion; gaur egun, italiar *norcino* hitza harakinaren sinonimoa da oraindik. Tumoreak, herniak eta kataratak sendatzeko kirurgia egiten zuten, eta garai batzuetan eskaera handia izan zuten mutikoak zikiratzen, kantuan



Annibale Carracciren *harategia*, 1580. urte ingurukoa.

karrera egin zezaten, hau da, *castrato*-ak izan zitezten.

Zirujau eta harakin ibiltariak ziren, bina ibiltzen ziren batetik bestera, eta maiz Umbriatik kanpo ere jarduten zuten, Italiar penintsula osoan.

Paolo Savoia historialariaren ustez, anatomiaren ezagutza teoriko handia zuten eta, gainera, tresneria zehatza eta

ebakuntzak egiteko esperientzia praktikoa. Horregatik, ez zaigu zertan harri-garria iruditu bi jardunak bateratzea: “Gutziz ulergarria da bi lanbideen arteko lotura hain arrakastatsua izatea”. Harri-garriagoa iruditu beharko litzaiguke beste “gremio” bat arimak salbatzeko eta gorputzak zaintzeko jardunak bateratzeko gai ez izatea. ●



280 milioi urteko faltsifikazioa

Italiar Alpeetan duela 280 milioi urteko narrasti baten fosila topatu zuten 1931n. *Tridactylus antiquus* espezie moduan katalogatutako fosila, lehen narrastien eboluzioa aztertzeko funtsezkotzat jo izan da ia mende batez; hainbat adituk izan dute hipside liburu eta artikuluetan, eta galdera eta zalantza ugari utzi ditu agerian, baina orain arte inork ez zuen

fosila sakon aztertu, Corkeko (Irlanda) unibertsitateko ikerlari batek teknologia berrien bidez ikertzea erabaki duen arte. Eta erantzun bat lortu dute: halako aurkikuntzekin zuzurtiaz jokatu behar dela, ikusgai dagoen fosilaren zatia ez baita narrastiaren azala, pintura beltza baizik. Hau da, fosila manipulatu, faltsifikatu dago. ●

UXUE ALBERDI: HAMARKADA BI IDAZTEN (I)

Aulkitik aulkira, euli-giro eta Jenisjoplin, kontrako eztaarritik dendaostera

Uxue Alberdiren lanari begira jarriko gara oraingoan. Lehenengo artikulua honetan helduentzako idatzi dituen ipuinak, eleberriak, saiakera eta kronika hartuko ditugu kontuan. Bigarren artikulua batean ilustratutako anekdotez, istorioez, filosofia liburuez eta idatzizko bertsoez arituko gara.

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI


Ikasketaz kazetaria, aurkezpen gutxi behar duen bertsolari eta idazle ezaguna da Uxue Alberdi. Berari entzuna da bertsolaritzak hizkuntzarekin jolasteko eta esperimentatzeko aukera ematen diola, oholtzak publikoarekin hartu emana izateko aukera eta kotxeko bidaiak beste bertsolariekin denbora pasatzekoa. Alegia, bertsolaritzak espazio publikoa eta plaza okupatzeko aukera ematen diola. Idazketak barrura begiratzeko aukera ematen dio eta hizkuntzaren zehaztasuna eta zuzentasuna bilatzen lagundu. Printzipioz bakardadean egiten den ariketa mota da idaztea. Bi diziplinatan hitzaren erabilerak markatuko du bere lana. Aita euskara irakaslea, eta ama liburu saltzailea izanik, hizkuntzarekin eta literaturarekin duen loturaren zati handi bat etxetik jaso duela esan genezake.

Bere ibilbide literarioari begira jarriko gara eta helduentzat idatzi dituen prosazko lanak aztertuko ditugu artikuluan (beste lanak, hurrengoan). Ibilbide luze eta zabala da berea. Luzea, 2007an argitaratu baitzuen bere lehen liburua, eta paseak direlako ia bi hamarkada argitaratzen hasi zenetik. Zabala, Alberdiren lanak beraien artean askotarikoak diren materialek osatzen dutelako.

HITZAK JATORRI, HITZAK HELBURU

Batxilergoko ikaslea nintzela, *Aulki bat elurretan* ipuin liburuaren aitzakian, Uxue Alberdiren bisita jaso genuen institutuan. Egia esan behar badut ez dut liburuaren lehen irakurraldi hartatik asko gogoratzeko, baina gogoan dut parea nuen idazlearen pentsatzeko zein hitz egiteko moduak nola liluratu ninduen. Goiz hartatik jarraitu diot pista Alberdiri, eta argitaratu bezain azkar irentsi ditut bere liburu gehienak. Eta, bai, gerora gogoratzeko dudak irakurraldia egin nion *Aulki bat elurretan* liburuari. Inpresioa egin zidan. Suedian kokatzen diren ipuinek osatzen dute liburua eta paisaia zuri eta hotzen irudiak dira liburuari komunitateko batzuk. Hoztasun klimatologikoa erabiltzen da hoztasun sozialari buruz zein pertsonaien bane mundu hotz (eta aseptikoaz?) hitz egiteko. Liburuak ipuin gordin batekin egiten digu harrera eta oso ondo zahartu delakoan nago. Eta ez nuen *Bon Jovi* kontakizunean egiten duen jolasa gogoratzeko, baina berrirakurtzera animatzen zaituztet. Oraingo irakurraldian orduan ere sentitu nituen hotza, bakardadea eta samina sentitu ditut.

Aulki-jokoa (Elkar, 2009) da argitaratu zuen hurrengo eleberria. Izugarri gustatzen zaidan nobela da, eta programatu dudak irakurle taldeetan ere harrera



ezin hobea izan duela aitortu behar dizuet (21. edizioa argitaratu berri da). Hala ere, literaturaren zubitegian (Armiarmako webgunean) begiratu gero, nobela motz hori da kritikarion partetik oihartzun txikiena jaso zuena eta kritika gutxien pilotzen dituen. *Aulki-jokoa* bizitzaren eta heriotzaren metafora bat da, hiltzen den zahar bakoitzak hutsik uzten baitu kafetegiko aulkia, hain zuzen ere. Eta kafetegiko enkontru horiek dira iraganaz hitz egin bitartean bizirik jarraitzeko arrazoia. Emakume protagonistak dituen nobela motza da, erraz irakurtzen dena eta tar- teka hunkigarria ere bai.

Aurkezpen liburu bi horien ondoren, eta lehenengo erditzearen ostean, arratsaldero bi ordu hartuta idatzitako liburua da *Eu-li-Giro* (Susa, 2017). Hala kontatu zion autoreak Juan Luis Zabalari *Berria*-rako egindako elkarrizketan. Ama izatera mugatuko zelako ustea zutela pentsatzen zuten besteek, eta horregatik, askatasun handiagoz idatzi zuen. Orduko literatur girotik jasotako harrerari, erreazioz idatzitako liburua izan zen. Ama izan ostean, bertsolaria eta idazlea izaten jarraituko zuela bere buruari zein munduari erakusteko beharra sentitu zuen. Aurreko bi liburuekin alderatuta ipuin ilunagoak dira, sentsazio batetik sortuak eta sentsazioak sorrarazten dituztenak: deserosotasuna, egonezina... Oso errealistak dira, nahiz eta absurdotik edo nahasmendutik asko duten. Berriakurri dudanean Olatz Mitxelena *Arrain hezur bat eztarrian* liburuaz gogoratu naiz. Hain desberdinak izanagatik ere, sentsazio antzerakoak sortu dizkirate.

1980etatik hiru hamarkadako kronika jasotzen da laugarren liburuan, *Jenisjoplin* (Susa, 2017). Gatazkari lotutako paisaia dugu: borroka armatua, militantzia, kartzela, droga. Patriarkatua. Baina gizakiak diren pertsonaiek osatua: gaixotasuna, zaurgarritasuna, gozamina, plazera eta edertasuna. Epikotasuna eta egunerokotasuna nahasten dira. Konbinazio horrekin (bereziki epikotasunarekin), alde batetik, autoritatea duen kritika maskulinoaren hobespena jaso zuen liburuak. Alberdik berak aitortua da liburuak argitaratu ostean soilik sentitu zela lehen aldiz benetako idazle. Eta konbinazio honekin (bereziki egunerokotasunarekin) irakurleen interesa ere bereganatu zuen liburuak, dinamikoa baita eta hausnartzeko aukera ematen baitu. Laugarren liburu honetan, kritikek eta irakurleek bat egin zuten liburu borobila delako iritzian.



DANI BLANCO / ARGIA CC BY SA

Susa argitaletzeko Lisipe bilduma feministan argitaratutako *Kontrako ez-tarritik* (2019) liburuak testigantzetan oinarritutako saiakera bat da; Svetlana Aleksvic autoreak *Gerrak ez du emakume aurpegirik* (Elkar, 2014) liburuan egin bezala, hamabost testigantza jaso ditu Alberdik, bertsolaritzaren munduan emakumeek bizi duten biolentziaren inguruko diskurtsoa harilkatzeko. Horrekin batera, sarreran autoreak berak esaten duen bezala, "bertsolaritzaren definizio tradizionala zabaltzen eta osatzen lagundu nahi luke" (liburuak). Isiltasun deseroso ugari sortu bazituen ere, maitasunetik egindako proposamen ausarta eta beharrezkoa izan zen. Bertsolari emakume batzuk kolektiboan eta elkarrekin hausnartutako horri ahotsa

ematea lortu zuen modu didaktiko batean eta estilo zuzen batekin. Liburu honekin ondo merezitako 2020ko Euskadi Saria irabazi zuen.

Begirada maskulinoaren hatsetik ihesean, *Dendaostekoak* (Susa, 2020) liburuak denetan klasifikatzeko zailena da. Autoreak hibrido bezala izendatu du. Nik, autobiografia kolektiboak eta kronikaren arteko materiala dela esango nuke. Dena dela, lan konplexu eta sakona egitea lortu du idazleak. Ama eta izeba diren Marijo eta Izaskunen ahotsetatik kontatuta dagoen istorioak Pitxintxu dendan du bere epizentroa, kalera ematen duen erakusleioak, dendak berak eta errekarera ematen duen dendaosteak osatua. Dendaostea, intimitatea, kontsideratzen den horri dimentsio politikoa ematen zaio liburuan; alde batetik, emakumeen gauzak kontsideratzen direnak (joskintza estiloak, brodatuak, tala motak edota hilekoa, bortxaketa edo abortua) zehaztasunez izendatzen direlako eta garrantzitsu bezala tratatzen direlako. Beste alde batetik, indartsuak, askeak, erabakigarriak eta erresilenteak diren emakume biren begirada (eta aho-

tsa) jasotzen duelako Alberdik. Ahizpak izanik ahizpatasunez ibili dutelako bizitza (eta Karakaterako bidea).

Lumbung (Txalaparta, 2022) eta *Zirriborroak eta gero* (Consonni, 2023) liburu kolektiboetan ipuin banarekin ere hartu du parte.

Hasieran esan bezala ibilbide literario luze eta zabala egin du Uxue Alberdik. Idazten zuen neska gazte bat bezala hartu zuen literatur sistemak, baina bere ahots propioaren bilaketa egin duen idazle dugu egun. Argitaratu duen testu bakoitza originala da. Tonu eta forma aldetik obra aberatsa sortu du. Eta begirada gauza txiki eta inportanteetan pasatu du. Aibilezia duela erakutsi du eta hitzela munduak irekitzeko gaitasuna duela ere bai. ●

BABESLEA:



ZORIGAIZTOKO MUSIKARIEN LAZTASUNAK

Alfonso Cardenalek *Vidas Perras. Cuentos musicales del Sofá Sonoro* (Bizitza Latzak. Soinu-sofako musika-ipuinak) izenburuko liburua argitaratu berri du. Bertan, herri-musikaren historiaren bazterretan abandonatutako kultuzko hogei musikariren zorigaiztoko biografia txikiak jaso ditu, gehienak afroamerikarrak, eta asko eta asko emakumeak.

 JULEN AZPITARTE

Autoreak berak liburuaren sarrean azaltzen duenez, artista horien inguruko dokumentazioa eskasa da, eta dokumentalgile haietako asko, gainera, gezur zale amorratuak ziren. Hartara, misteriozko eta fikziozko ipuinen itxura hartu dute hogeik kontakizunek, musikari galtzaile eta, neurri handi batean, ezezagunen porrotak nabarmentzeko, haietariko batzuk arrakastak eragindako amets horditu eta behin-behinekoetan lokartu izanagatik ere. Horiek horrela, bizitza latz horietan drama da nagusi, baina baita fedea, harrotasuna, baikortasuna eta erredentzioa ere. Cardenal autoreak Espainiako Estatuko Ser irratiko elkarrizketan honela azaldu du: “Porrota baino ezohikoagoa da arrakasta, baina ez dut uste bata bestea baino interesgarriagoa denik. Sistematik, arauetatik, guztiek egiten dutenetik at dagoen jendea gustatzen zait, eta uste dut hori egitea errazagoa dela arrakastarik ez duzunean, egiten duzuna inori inporta ez zaionean”. Irrati-kate berean *Sofá Sonoro* (Soinu-sofa) irratsaioa zuzentzen du Cardenalek.

Ibilbide zangotrabatu horietan, baina, musika gailentzen da, errauts bilakatutako arimak askatzeko errezo gisara. Musika ogibidetzat edo pasiotzat hartu zuten pertsonaien zerrenda bitxia eta askota-



rikoa da, musika beltzaren eta folkaren itzala nabarmena den arren. Zerrendan, besteak beste, *Fever* sonatua abestu zuen Little Willie John; hiru ahizpez osatutako eta aitak esku gogorrez zuzendutako The Shaggs garage-rock talde kalamastara; eta Magín Díaz daude, zeinak Karibeko herri-musika kantuz elikatu zuen anonimotasunetik.

Abner Jay eta Tom Wilson ere aipatu ditu Cardenalek liburuako zerrendako kutunen artean. AEBetan barna bere furgonetan bidaiatu zuen orkestraria izan zen Jay, merkataritza-zentroetako apartekalekuetan jotzeko asmoa zuena: “Alopeziaren kontrako elixirrak eta maitasun-edabeak saltzen zituzten gizon horietako bat zirudien”. Tom Wilson, berriz, ekoizlea zen, eta, besteak beste, Bob Dylanen eta The Velvet Undergrounden diskoak ekoitzi zituen, eta Frank Zappa ezagutarazi zuen. “Tenisean jokatzeko zuten afroamerikar ultrakontserbadorea zen, luxua gustatzen zitzaion, Oxforden lizentziatu zen eta Columbia konpainiako ekoizle beltz bakarra izan zen. Eskubide Zibilen aldeko borrokatik eta arrazismotik urrun nola bizi izan zen jakitea gustatuko litzaidake, eta zergatik egun batean, beste barik, rocka uztea erabaki zuen”. Liburuaren autorearen kutunei jarraituta, honatx liburutik erauzitako hiru artista xebrerren bizitza gorabeheratsuak.

FOLK ESTRALURTARRA

Espazioarekin, zientzia fikzioarekin eta objektu hegalarri ezezagunekin obsesio-naturiko folk musikari estatubatuarra izan zen Jim Sullivan (1945-1975). Bere grina hain izan zen handia, *U.F.O.* (1969) izenburudun disko bat grabatu zuela, non folka psikodeliarekin uztartzen

zuen. Diskoa, baina, ez zen gehiegi nabarmendu. Halere, tematurik, bigarren lan homonimoa grabatu zuen 1972an, eta *Playboy* aldizkariak plazaratu zuen. Disko-dendei arazotxo sortu zitzairen: ez zekiten non eta nola sailkatu porno argitalpen batek plazaratutako lana. Ondorioz, bigarren ahalegin hori ere oihartzunik gabe gertatu zen.

Erabat hondoratuta, familia agurtu, autoa gidatu, eta Tennesserako bidea hartu zuen. Errepidean bi polizia agentek atzeman eta atxilo hartu zuten –Cardenalek dio: “Musikaria eta tximaduna, eta balantzaka”–, eta Mexiko Berriko Santa Rosa hirian utzi zuten, basamortutik gertu. Emazteari deitu zion, eta desagertu egin zen pistarik utzi gabe.

40 urte geroago, diskoetxe bat zuzentzen zuen Marshall Sullivanek deitu zion musikariaren emazteari, *U.F.O.* berriro argitaratzeko asmoz. Bat-batean, grabazioaren hamaika zale loratu ziren, batez ere fenomeno paranormalei buruzko irratsaio bat diskoaz mintzatu zelako. Orduan, musikariaren inguruko kultura sortu zen, eta jarraitzaileak Mexikoko Santa Rosara erromes joaten omen dira Sullivanen desagertzea argituko duten pistak bilatzera, musikariaren arrastoa galaxia urrun batean egon zitekeen arren, estralurtarrek abduzituta.

FUNK FELIDOA

Betty Davis (1945-2022) funk musikari eta modeloak Miles Davis jazz musikariarengandik hartu zuen deitura, harekin ezkondu baitzen 24 urte zituela –Miles Davisek 42 urte zituen–. Bikote ezkonduak urte eta erdi iraun zuen;

Betty gazteak ospa egin zuen, senarrak jipoitu egiten zuelako.

Betty nabarmen markatu zuen Milesengan, batez ere estetikan: “Bettyk kolorea sartu zuen, freskotasuna, baina baita lihazkiak, antea eta bufandak ere, eta, batez ere, betaurreko modelo deigarriak, ausartak eta nortasun handikoak”, dio Cardenalek. “24 urteko modelo batekin ezkondu izanak dakarrena”, esaten zuen Miles musikariak.

Haren musikan ere eragin zuen Bettyk, tronpetariaren proposamenean ez baitzuen dantzarako arrastorik aurkitzen. Ondorioz, Sly Stone, The Byrds, Jimi Hendrix eta Aretha Franklinen diskoekin bete zuen Milesen etxea. Bettyk ere bere bidea egin zuen musikan, baita zenbait disko grabatu ere: “Bere kantuak gordinak, amorratuak eta harrigarriak ziren. Ezberdinak sasoiaren entzuten ziren kantuekin alderatuta. Probokatzailak. Bere gorputzarekin eta sexualitatearekin eroso zegoen emakume bat ikustek deseroso sentiarazten dienezako musika-zartakoak. (...) Lurretik ibiltzen zen, katamarka, kulunkatu egiten zen, orro egiten zuen”. *Penthouse* argitalpenak hauxe argitaratu zuen musikariaren kontzertuen harira: “Betty Davis estreinako ikustea zure lehen film pornografikoa ikustea bezala da, Disneyren film bat espero zenuenean”. Betty harro, baina, era berean, deseroso sentitu zen. Bere jariora ausartegia zen garaiko irratientzat, eta arrakastak iskin egin zion.

Azken ahalegin bat egin zuen: Japoniako merkatura egin zuen salto, baina hori ere esfortzu antzua bilakatu zen. Gerora, buru-gaixotasunen ondorioz,


pobrezian bizi izan zen. Phil Cox zuzendariak aurkitu zuen arte soto batean, musikariaren inguruko dokumentala egiteko asmoz. Harrezkeroztik hobera egin zuen: bere diskoak berrargitaratu zituzten, eta bere kantuak sanpletuak izan ziren, besteak beste, hip hop doinuetan edo Lenny Kravitzten kantuetan.

NIGERIAKO FUNK FUTURISTA

William Onyeabor (1946-2017) musikari nigeriarra Enugu estatuan jaio zen, eta hori da hari buruz daukagun datu bakane-takoa, jaiotza-data bera ere ez baita batere zehatza. Izan ere, bere iraganaz galdetzen zioten bakoitzean, irribarre besterik ez zuen egiten, eta “Jainkoaz baino ez dut hitz egin nahi” esaten zuen. Hortaz, bere biografia erabat lausoa da. Batzuek esaten dute Oxforden ikasi zuen abokatua zela; beste batzuen aburuz, Nigeriako gobernurentzat lan egiten zuen kontratista zen; eta azken batzuen iritziz, zine-ekoizpenari buruzko ikastaro bat egin zuen Sobiet Batasunean 1970eko urteetan, eta bere herrialdera bueltatu zenean, estudio bat eraiki zuen film bat egiteko. Enuguko errege izendatu zutela ere zabaldu zen. Horiek horrela, musikariaren biografia enigma handi bat da. “Istorio horiek entzuterakoan, Onyeaborrek barre egiten zuen bere etxean, baina ez zuen inondik ere bere bizitza argitzeko asmorik”, dio Cardenalek.

Beti dotore jantzia, ez zuen biraorik txistukatzen, deboziozko sinestuna baitzen. Teknologia zalea, musika maite zuen gauza guztien gainetik. Berak fabrikatutako zortzi disko argitaratu zituen, 1970eko hamarkadaren erdialdetik 1980ko hamarkadaren hasierara arte. Sintetizadoreek bultzatutako Onyeaborren musika Nigeria osoan hedatu izanagatik ere, pertsonaia eta pertsona misterioak estali zituen, ez baitzuen inoiz elkarrizketarik eman eta ez baitzen inoiz telebistan agertu.

Gerora, Williamen musika European berragertu zen, Nigeriako 1970eko hamarkadako musika biltzen zuen bilduma bat tarteko. Disko hori Talking Heads-eko lider David Byrne zuzendutako Luaka Bop diskoetxeko kideek entzun zuten, eta burmuinak kiskali zitzaizkien. “Bere doinuetan funka zegoen, haize instrumentuak eta koruak, 1980ko urteetako soinuak zeuden, bideo-jokoetako eta *pinball*-etako zarata espazialekin, emakumezko ahotsekin nahastuak, baina baita Fela Kutiren *afrobeat*-aren oihartzunak eta mezuaren hondarrak ere”. ●





Hitz gezidunak

EHUNA, OIHALA TXIRRINGAREN JARLEKU	ARRASTOA, SEINALEA GARRANTZI HANDIKOIA	ANESTESIKO MOTA	TXAMARRA SOTO, UPATEGI	BILBOKO OKUPAZIO MUGIMEN- DUA LITROA	ERRAZA EZ DENA TXORIEN KARTZELAK	MUGAZAINA ESKAILERA BURU		
		TXALOTU BIGARREN MUSIKA NOTA						
ZELAIAK, BELARDIAK GEHEGIEKERRIAK				OREA EGITEKO ASKA KILOA				
					HAZI BIRIBIL BERDE KOLPEAK EMAN			
NAFARROAKO HERRIA	JAINKO EGIPTOARRA ZUHAITZ ERRALDOIA	EZINEAN				NEODIMIOA ZUHAITZ MOTA		
						MOLUSKU MOTA ZELAIA, TOKI LAUA		
EUSKAL ARTISTEN ELKARTEA IKUSI (LABURDURA)								NARRAZIO LABUR
	AZKEN LETRA IRUZUR, ENGAINU							
IRRIKA, GOGO BIZI ARGAZKIAN		SUARI DARIONA MAIZ, SARRITAN	GRINA LEGEZ, BEZALA	AZKEN BOKALA	ERRESISTENTZIA NIRE	POTENTZIA ERREPIKATUA, LOGURAREN EULIA		
				IZOZTU OROTS				
BEGIAREN ERAZTUN KAIKU HANDI			JASA, EKAITZ TONA					
					ZEREN			

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1 ETIK 9 RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	3				6			
	7	2		3	6		1	9
6	1	5			2	4		
	9	4		6				
		1				3		4
3	6		2				9	1
8	5	9	3	2		1	4	
						9		
1	2	3		9			8	

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Bukatu da!
2. Ura eramateko erretren artifizial.
3. Bezala.
4. Janaria, bereziki animaliena.
5. Landare mota (pl).

EBAZPENAK

1. AKABO
2. KANAL
3. ANTOZO
4. BAZKA
5. OLOAK

5	8	7	4	6	9	3	2	1
2	7	1	5	8	9	4	7	6
3	6	4	1	3	2	5	8	9
1	9	2	4	8	5	6	3	7
4	8	5	9	3	6	7	2	1
6	1	7	2	4	8	5	9	3
5	6	4	1	6	3	2	7	8
7	2	5	3	6	8	1	9	4
9	3	8	4	7	1	6	5	2

N	E	Z	E	R	Z	U	K	A	K
I	S	U	A	E	S	I	R	I	I
I	T	L	E	L	E	N	I	O	D
P	R	U	L	K	Z	U	Z	I	P
I	K				Z	K	I		
V	A	N			E	V	E		
V	L	A				I	S	U	
D	O	J				R	A		
R	I	L	K	A	R	R	K	E	R
V	A	I	R	A	K	E	V	A	K
U	K	A	T	V	A	X	T	V	A
G	Z	B	J	E	M	T			



Porrusalda eta martxea

UDANE BARINAGARREMENTERIA LAKA SARA ODRIOZOLA

Ainara Legardonen hitzaldia-ekin hasi da Mefsst! jaialdia-ren bigarren eguna Zarauzko Hiruputzu gaztetxean, adimen artifizialak kulturaren eta musikaren sektorean duen eraginaz hausnartzeko espazio intimo bat sortuta. Egia aitortzera, barre txikia atera zait Ainarak gordin azaldutako *Capitalismo de la Vigilancia* adieraren euskarazko ordainaren bila Elhuyarrera jo dudanean. Zaintzaren kapitalismoa, *toma esa*.

Baina oximoronak oximoron, MJ Lisaminak eman dio segida, solasaldiak eragindako hotzikareei epela emanez. Eta munstroaren aurrean paralizatuta geratu ordez, mugikorrek utzi eta kide feministaz inguratuta dantzatzeko gonbita egin digute Zetkin taldekoek ere. Martxak areagotuta, ahizpatasuna eta sua ekartzera heldu dira Baionatik. Pun-

karen formulari –abiadura, distortsioak eta mezu zuzenak– feminismoa injeztatzeke proposamena da boskotearena, lehenengo abestitik azkeneraino soinu-bandadun manifestu bat osatzen duena. *¿Quién te dijo que iba salir con miedo a rugir?* ohartarazita, ekin orduko konektatu dute publikoarekin. Abesti propioen indarra gutxi ez, eta bertsio pare bat tartekatu dituzte, tenorea mantenduta sua hauspotu dutenak: *Zorra* eta *Lola*.

Euskal Herriko punk feministaren legatuaren aitortza ederra iruditu zait, legatu horren ezinbesteko espazio den jaialdi batean egiteak daukan esangurarekin, gainera. *Porrusalda eta martxeak* osagai dituen ahizpatasuna eta kea, aurretik bidea ireki ziguten intensa horiei lekukoa hartuta datorren marruma baionarraren eskutik.

Itzek talde mungiarra izan da gauaren segidaren arduradun, eta herri-

MEFSST! MUSIKA ERREBOLTA FEMINISTA

NOIZ: Otsailaren 24an

NON: Zarauzko Hiruputzu gaztetxean

kide dituzten taldeen influentzia nabaria da hirukote hasiberrian. Abesti bakarra dute grabatuta, baina zerrenda ederra aurkeztu dute. Abestiei neurria hartuta, zuzenekoei neurri hartzen ari den taldea; Mungiatik Euskal Herrira zabaltzen ari den musikaren basoko basa-lore ernatu berri bat, ongarririk falta ez zaiona. Eta ilunpean, jada epeletan, ahal eta nahi zuenak jarraitzeko aukera eman zigun DJ Eromenak, Mefsst!-en edizio honi amaiera emateko.

Musika errebolta feministaren soinu-banda eta osagai dira basa-lore ernatu berriak, *intensak*, *zorrak* eta *Lolak*. Baina baita haientzat porrusalda eta soinu-ekipoa mimosoz prestatzen dituztenak ere. Sua piztea ez baita nahikoa, iraun dezan zaintzea behar du; martxea betikoena izan ez dadin izerdia, hitzak eta gorputzak jartzea. ●



Pagoa, zuhaitza



ALTXA, HILDAKOAK!

FRED VARGAS

TXALAPARTA, 2024

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Egun batetik bestera, ordu batzuen buruan gertatu da gertatu dena: zuhaitz bat agertu da Sophiaren lorategian. Pago bat.

Hasiera horrek hartzen ditu liburuko lehen orriak. Anekdota original horrek harrapatzen du gure arreta, eta idazleak misterioa ematen dio lehenengo kapituluari. Eta, aldi berean, Sophiaren eta bere senarraren alboko etxean bizitzen jarri diren hiru lagun gazteak aurkeztuko zaizkigu, baita zaharragoa den laugarren bat ere. Misterioa hemen ere. Intri-ga izango da liburu osoan zehar izango dugun elementu garrantzitsuenetarikoa bat. Eta nabarmentzekoa da autoreak bi istorioak lotzeko duen abilezia; nobela beltzaren ezaugarri den misterio horrek soilik emango du argia.

Aipatutako hiru pertsonaiak hiru liburuko serie bateko protagonistak dira (*Los tres evangelistas* edo *Hiru ebanje-*

listak), horien artean hizketagai dugun hau. Hiru pertsonaia horiek gizartearen historiako momentu jakin batean espezializatu dira, eta horrek pertsonaien karakterizazioan eragina izango du. Arrakastarik gabeko pertsonaiak sortu ditu autoreak, frikiak, mediokreak. Eta aldi berean nortasun handikoak. Umore-rako eta absurdurako lekua irekiko du horrela, nobelaren tonu misterio-tsua eta beltza tonu ironikoarekin tartekatzeko aukera. Eta, gainera, pagoaren agerpena, Sophiaren desagerpena, hilketa bat eta abarrak argitzeko betebeharra izango dute. Beraien arteko elkarrizketak oso ondo idatzita daudela esango nuke; tentsioa mantentzeko prestatuak, arintasuna ere ematen diote testuari.

Estilo aldetik aberatsa iruditu zait. Deskribapenak egiteko gaitasun handia du autoreak. Deskribapenen bitartez

eta pertsonaiez aparte, giroak eta momentuak sortzeko abilezia eta horietan irakurlea murgilaraztekoa. Detailez betetako liburua da.

367 orriko obra izanik (nahiko luzea dela esan dezakegu), irakurraldiaren momentu batzuetan nekatu egin nau. Hala ere, kanpo egitura lagungarria eta aproposa da, 34 kapitulu motzetan banatuta baitago. Gainera, kapitulu motz horiek eritmoari laguntzen diotela-koan nago.

Euskal Herrian literatura beltza sustatzeko VI. (H)ilbeltza beka jaso zuen Beñat Irastorzaren itzulpen honek. Oso ezaguna den Fred Vargas autorearen nobela hau da euskaraz irakur dezakegun lehenengoa, eta honekin eman diot hasiera autore honen lanak irakurtze-ari. Hamarnaka liburu dauzka, eta ziur naiz ez dela irakurriko dudana bakarra izango. ●



MUSIKA

Distira musikan, zakarkeria ekoizpenean



ENRIQUE MORENO ESQUIVEL

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Spoiler: Euskaldunan entzun genuen musika-mirari bati buruz idatziko dut, nahiz eta haren eszenaraztea ahazteko modukoa izan den. Lerro hauek idazten dituen ez da izutzen eszena ausartengatik, ez da mindulina edo horrelako ezer.

Ezin dut jasan ekoizpen ustez feminista baten etiketaren azpian ekoizpen erabat matxista agertzea, tramari ezer ekartzen ez dioten irudiz betea, eta adierazten duen gauza bakarra emakumearenganako mespretxua izatea, haren irudi erabat ahul eta hutsa eskainita. Dantzari-talde horrek guztiak, batzuetan biluzik, felazio-mugimenduak, sexu-eszenak eginez, ez zuen lekurik *Rigoletto*-ren istorioan. Horrek guztiak antzezpenerari ekarri zion gauza bakarra gustu txarra izan zen, eta ikusle batzuentzat ziur aski zentzurik gabeko interferentzia bat, benetako gozamen musikaletik aldentzeko zuena.

Hori guztia esanda, egia esan, ikuspegi musikal hutsetik begiratuta, OLBEk aurkeztu zigun *Rigoletto* zoragarria izan zen. Dena bere puntuan egon zen eta kantari guztiak grazia egoeran egon ziren, zalantzarik gabe.

Amartuvshin Enkhbat baritono mongoliarrak aho zabalik utzi zituen entzuleak, ahots- eta interpretazio-ezaugarri bikainak demostratu baitzituen. OLBE debutari, *Rigoletto* honetan ahots biritu entzun ahal izan genion, ezin hobea fraseoan, indar handikoa baina aldi berean malguta eta xarmagarria. Oso gutxitan gozaten den ahots horietako bat.

Sabina Puértolas sopranoaz gauza onak bakarrik esan ditzakegu. Bikain aritu zen Gildaren rolean, bikote zoragarriak egin zituen baritonoarekin, bigarren ekitaldia ixten duen *cabaletta* ikusgarria bezala, publikoaren harrera beroaren aurrean errepikatu behar izan zutena.

FITXA

ZER: OLBEk antolatutako Verdiren 'Rigoletto' opera.

NORK: Bilbao Orkestra Sinfonikoak eta Bilboko Opera Abesbatzak.

NON: Bilboko Euskalduna Jauregian.

NOIZ: Otsailaren 23an.

Nire ustez, bestalde, Ismael Jordi tenorearen lana ez zen merezi bezain txalotua izan. Duke di Mantovaren papera interpretatu zuen; oso tenore dotorea da, tinbre bereziki ederra du, eta ahoskera eta fraseaketa bikainak ditu.

Gainerako bakarlariek ez zuten huts egin. Carmen Topciu mezzoak, Maddalenenaren paperean, maila handia eman zuen. Baita Marifé Nogalesek ere, Giovannaren rolean; Fernando Latorrek, Monterone kondearen paperean; José Manuel Díazek, Marullo bezala; eta Emanuele Cordaro baxuak, Sparafucileren rolean.

Daniel Orenek Bilbao Orkestra Sinfonikoaren gidaritzan egindako lana bikaina izan zen une oro, ahots bakoitza bikain azpimarratuta. Hasieran esan dudana bezala, Miguel del Arcoren eszena-zuzendaritza ahazteko modukoa izan zen. Eskerrak musikak dena sendatzen duen. ●

Suzko mezua

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Aaron Bushnell zuen izena, 25 urte, militar aktiboa AEBetako armadan. Otsailaren 25ean, Israelek Washingtonen daukan enbaxadarantz oinez hasi zen bere uniforme jantzita. Mugikorrarekin zuzenean transmititu zuen bere mezua. “Estatu Batuetako Aire Armadako kidea naiz, eta ez naiz genozidioaren konplize izango. Muturreko protesta-ekintza batean parte hartzearen nago, baina jendea Palestinan beren kolonizatzaileen eskuetan bizitzen aritu denarekin alderatuta, ez da inola ere muturrekoa. Gure agintari-klaseak erabaki du hau izango dela normala”.

Telefonoa lurrean zutik jarri zuen, egitear zegoenari begira. Eta bere buruari su eman zion enbaxadaren atarian, “Palestina askatu” oihukatzen zuen bitartean. Bideoan ikusten denez, gorputza kiskaltzen ari zitzaion bitartean AEBetako zerbitzu sekretuetako kide batek pistolaz apuntatu zion, lurrean etzateko agindu bitartean. Egoera hobeto ulertu zuen beste polizia batek: “Ez dut pistolarik behar, su-itzalgaileak behar ditut” entzuten zaio oihuka. Denetik esan da prentsan honetzeko Bushnellen immolazioaz eta, noski, leku ugaritan jarri da zalantzan haren osasun mentala. Pertsonalki, ez nau harritu. Ez gazte estatubatuarrek arazo psikologikoak zeuzkala uste dudalako, beste zerbaitengatik baizik: munduaren alde honetan –herrialde

aberatsak, Mendebaldea, zentro kapitalista: deitu nahi duzuen moduan–, pentsatu litekeenaren mugatik harago daude horrelako ekintzak. Gehienoi izugarri kostatzen zaigu kausa publiko batean engaiatzea bizitza jokoan jarzteraino.

Kasu konkretu honetan, balirudike gure minimo etikoen bozeramaileak zera xuxurlatzen digula belarrira: “Ados, milaka palestinar sarraskitzen ari dira gure muturren aurrean, baina motel, ez hartu hain serio”. Badakigu, baina ez dugu jakin nahi; eta ez dugu

nez jakin nahi, jakingo ez bagenu bezala jokatzeko dugu. Eta norbaitek irudi krudelen aurrean *scroll* egin ordez gauzak *hain serio* hartzen dituenen, ezin dugu onartu ekintzaren interpellazio implizitua –“eta zu zer ari zara egiten?”–.


Saihesbideren bat bilatzen dugu. Prentsak erruz eskaintzen dizkigu: osasun mentalaren kontua aipatu ez duenak, Bushnellen haurtzaroan aurkitu du materiala –sekta erlijioso batean hazi zen– edo haren ideologian –anarkista zen–. Kurioski, horrelako kontuen berri eman diguten pieza informatiboetan ez da loturarik bilatu gradu horretako autobiolentziaren eta gaztearen karrera militarren artean, nahiz eta bere buruari su eman aurretik egindako adierazpenak horretarako aukera ematen duen.

Asko eztabaidatu liteke horrelako ekintza baten eragin-kortasun politikoaz ere. Baina ez dakit merezi duen, izan ere, alde horretatik begiratuz gero, *ezerk* ez du balio, antza denez, palestinarren aurkako herio-makineria geldiarazteko; beraz, nekez izango da baliagarria *zerbait*, edozer dela ere. Ez, genozidioa ez da bukatuko ekintza suizida batengatik. Baina nire ustez, pitzadura bat eragin du. *Han* hiltzen ari den jendearen lagin txiki bat hemen jarri du Bushnellek. Eta eszenografia aldatze hutsak agerian utzi du bizi garen antzerki hau zein hauskorra izan daitekeen. ●



Aaron Bushnell militar estatubatuarrek bere buruari su eman zion Israelgo enbaxadaren aurrean.

Bi astelehenean behin ARGIA
eta plataforma guztietan



Idoloez Iholdi Beristainekin

 [ARGIA.eus/podcast](https://argia.eus/podcast)



Martxoak 4, astelehena, 20:00etan argia.eus-en



bertako
igogailuak | ascensores
KORRIKAN ERE

**EUSKARA,
GURE HELBURU
PARTEKATUA**

GIPUZKOA 943 903 450 ARABA 945 712 822 BIZKAIA 946 523 935 NAFARROA 848 870 917

bertako.eus